

**KULTURARTEKOTASUNA XXI. MENDEAN:  
BERPENTSATU IKUSPEGI KOLONIALETIK  
AT. HERRI INDIGENEN KASUA, KICHWA  
OTAVALOTARRAK**

**GRADU AMAIERAKO LANA**

**EGILEA:** Gereka Amunarriz, Eki

**GRADUA:** Lehen Hezkuntza

**ZUZENDARIA:** Arregi Orue, Joseba Iñaki

**MINORRA:** Gorputz Hezkuntza

**2020 - 2021**

## AURKIBIDEA

1. LABURPENA .....	4
2. SARRERA .....	5
3. MARKO TEORIKOA .....	6
3.1 KULTURA ETA KULTURARTEKOTASUNA .....	6
3.2 KULTURAK KONTAKTUAN JARTZEN DIRENEAN.....	7
3.3 MENDETAKO ZAPALKUNTZA, ISILARAZTEA ETA IKUSEZINTASUNA.....	9
1. Belaunaldia: Aro Koloniala.....	10
2. Belaunaldia: Errepublikar Kolonialismoa .....	11
3. Belaunaldia: Globalizazioaren kolonialismoa.....	12
3.4 LAUGARREN MUNDUAREN SORRERA ETA NAZIOARTEKO AKTORETZA POLITIKOA .....	13
3.5 HERRI INDIGENEN BORROKAN MUGARRI GARRANTZITSUENAK.....	14
3.6 SUMAK KAWSAY.....	16
3.7 LAUGARREN MUNDUA ETA EUSKALDUNAK, KULTURA AGONIKOEN ARTEKO LOTURAK .	18
4. IKERKETAREN HIPOTESIA, HELBURUA ETA METODOLOGIA .....	20
5. IKERKETA .....	22
5.1. Otavalo eta Otavalotarrak .....	22
5.2 Galdetegia.....	23
5.3 Ikerketaren emaitzak.....	24
5.3.1 Indigena izatea .....	24
5.3.2 Terminologia .....	25
5.3.3 Hizkuntza.....	26
5.3.4 Legedia eta mugimendu indigenak.....	28
5.3.5 Sumak Kawsay proposamena eta “Movimiento por el Socialismo s. XXI” mugimendua.....	30
5.3.6 Auzolana/Minga .....	31
5.3.7 Erljioa .....	32
5.3.8 Amalurra eta Pachamama.....	32
5.3.9 Osasuna eta medikuntza tradizionala.....	33
5.3.10 Emakumeak eta genero berdintasuna.....	33

5.3.11 Teknologiaren garrantzia mugimendu indigenan .....	33
5.3.12 Indigena desagertuaren mitoa .....	34
6. PROPOSAMEN METODOLOGIKOA: SEKUENTZIA DIDAKTIKOA.....	35
6.1 Esku hartzearen deskribapena .....	36
6.2 Helburua .....	37
6.3 Ebaluazio.....	38
7. ONDORIOAK.....	38
8. BALORAZIO PERTSONALA ETA HAUSNARKETA.....	42
9. BIBLIOGRAFIA .....	43
10. ERANSKINAK .....	45

## 1. LABURPENA

Gradu amaierako lan honen helburu nagusia, munduko herri indigenek pairatu duten zapalkuntza azaldu eta gero, Ekuadorreko Kichwa Otavalotarren egungo egoeran zentratzea izango da, herri indigenen gaur egungo aktoretza politikoa eta agenda erakusteko. Ekuadorreko indigenen testigantzak sakoneko elkarrizketa batzuen bidez bilduz, beraiek esaten eta pentsatzen dutenari ikusgarritasuna ematea eta gurera ekarriz, zubiak eraikitzea da helburua. Horrez gain, herri indigenen XXI. mendeko hizkuntzetara hurbildu eta irudi estereotipatua aldatzeko sekuentzia didaktiko bat aurkezten dut bertan, hezkuntzak gai honetan egin dezaken ekarpena erakusteko.

El principal objetivo de este trabajo de fin de grado es sacar a la luz la represión que han sufrido los pueblos indígenas de todo el mundo, para después centrarnos en la situación de los Kichwa Otavalos que habitan en Ecuador y así visibilizar su presencia política y agenda. Recopilando testimonios mediante rigurosas entrevistas realizadas a indígenas de Otavalo, el objetivo es dar voz y visibilidad a la situación en la que viven y crear puentes que nos acerquen. Aparte de esto, presento una secuencia didáctica para tratar de cambiar la imagen estereotipada que tenemos sobre los pueblos indígenas del siglo XXI en todo el mundo.

The main goal of this final research will be to focus on the current state of the Kichwa Otavalos in Ecuador as a case of oppression of the indigenous peoples of the world, making visible their political presence and agenda. By gathering the testimonies of the indigenous people of Ecuador through rigorous interviews, the aim is to give visibility to what they say and think, and to build bridges that bring us closer. I also present a didactic sequence of approaches to the languages of indigenous people in the XXI century to modify the stereotyped image in order to show the possible contribution of education in this matter.

## 2. SARRERA

Izenburuak dion bezala, lan honen helburua kulturartekotasuna eta XXI. mendeko indigenen errealitateari eta bereziki Otavalori buruzko hurbilpen eta hausnarketa bat egitea da. Izenburua indartsua baldin bada ere, nire xedea apalagoa da eta herri indigenen kasua, nire esperientzia pertsonalarengatik hurbilago izan dudana Ekuadorrera mugatuko dut eta zehatzago esanda, Otavalo indigenen kasura.

Nire gurasoak Otavalon bizi izan ziren denboraldi batez eta nire arreba bertan jaio zen. Betidanik hitz egin didate bertako bizimoduaz eta jakin-min handia sortu izan dit bertako kulturak eta bizimoduak. Gradu 3. urtean, Euskal Herriko Unibertsitateko mugikortasun programan parte hartu nuen eta Kolonbiara joan nintzen. Bidaia aprobetxatuz, Ekuadorrera hurbildu nintzen eta Otavaloko kultura eta nire arreba sorterrira ezagutzeko aukera izan nuen, eta baita bertako indigenen presentzia.

Marko teorikoan, kultura eta kulturartekotasuna kontzeptuak zehazten saiatuko naiz, bi kultura kontaktuan jartzen direnean ematen diren jarrera ezberdinak argitzeko asmoz. Bestalde, herri indigenak historian zehar izan duten zapalkuntzaren eta errekonozimendu faltaren bilakaera azalduko dut laburki, eta baita ere giza eskubideen arloan izan dituzten nazio arteko mugari aipagarrienak.

Marko teoriko hori alderdi praktikoari lotuz, XXI. mendeko Kichwa Otavalotarren analisi deskriptibo xume bat aurrera eramango dut, herri indigenen ahotsa, testuingurua eta ikuspuntua garatzeko asmoarekin. Horretarako, 30 galderaz osaturiko galdetegi bat bidali nien Ekuadorren, Otavalo inguruan bizi diren lau ezagun indigenei, eta horien erantzunek gaiarekiko sakontasun naiz gaurkotasun hurbila eskainiko digute hainbat arlotan. Helburua informazioa kontrastatzea, Kichwa Otavalotarrei ikusgarritasuna ematea eta estaturik gabeko nazioen arteko zubiak eraikitzea izango da.

Ondoren, irakaskuntza arlora hurbilduz, eskolaratzeko proposamen didaktiko labur bat azalduko dut, historian zehar isilarazitako herri indigenetara hurreratzeko, argitaratu berri den “*Hizkuntza indigenak ama lurra zaintzen*” (Llaupi et al., 2018) liburuan oinarrituz.

Bukatzeko gaiarekiko eta egindako lanarekiko nire balorazio pertsonala eta ondorioak azalduko ditut.

### 3. MARKO TEORIKOA

#### 3.1 KULTURA ETA KULTURARTEKOTASUNA:

Lan honen izenburuan bezala, kultura eta kulturartekotasuna sarritan ahotan eta medioetan zehaztasun handirik gabe eta oso intentzio ezberdinekin entzun eta erabiltzen ditugun kontzeptuak dira. Horregatik beharrezkoa ikusten dut, ezer baino lehen hauek argitzea eta zehaztea. Ondorioz jarraian gaien adituak diren autore ezberdinek kultura ulertzeko eta definitzeko ematen dituzten xehetasunak adieraziko dira.

1. Plog eta Bates-en (1980, apud Amani Kolektiboa, 1994) arabera, zera izango zen kultura:

*El sistema de creencias, valores, costumbres, conductas y artefactos compartidos, que los miembros de una sociedad usan en interacción entre ellos mismos y con su mundo, y que son transmitidos de generación en generación a través del aprendizaje (p. 127-128)*

2. C. Camilleri-k (1985, apud Besalu, 2002) berriz, kultura hitzaren beste definizio bat ematen digu:

*La cultura es el conjunto más o menos ligado de significaciones adquiridas, las más persistentes y las más compartidas, que los miembros de un grupo, por su afiliación a este grupo, deben propagar de manera prevalente sobre los estímulos provenientes de su medio ambiente y de ellos mismos, induciendo, con respecto a estos estímulos, actitudes, representaciones y comportamientos comunes valorizados, para poder asegurar su reproducción por medios no genéticos (p. 26).*

3. Anjel Lertxundi-k (Lertxundi, 2004) kulturaren inguruko definizio eta hausnarketa hau eskeintzen digu:

*Giza ezaugarri eta emaitza esanguratsuenekin gertatu ohi den bezala, kulturari ere ezin zaizkio mugak zehaztu, ezin zaio muina guztiz definitu, ezin dugu, itzulituruka ez bada, kultura zer den adierazi. Iruditzen zaigu badakigula zer den kultura, harik eta kultura zer den galdetzen diguten arte. Eta, orduan, ez baikaitu erantzun bakar batek ere asetzen, kulturak eskaintzen dizkigun obra eta emaitzei begiratzen diegu: hizkuntzari, arteari, munduan bizitzeko moduei, baloreei, jakintzari... Emaitzetan araka dezakegu, inon arakatzekotan, zer den kultura.*

*Kultura, giza nortasunaren espresio eta ospakizun. Kultura, hausnarketa eta ekintza. Kultura, mundua ulertzeko era bat, munduan egoteko manera bat. Kultura, joko-arauen onarpen gisa kontsideraturik, baina baita disidentzia eta desadostasunaren emaitza moduan ere. Kultura, tradizioaren eta etorkizunaren uztarketa. Kultura, gizarte zuzenago baten alde lehiatzeko premia. Kultura, edertasunaren aldeko apustua. Kultura, beste kulturekin elkar ulertzeko zubia. Kultura, giza gurarien zilegitasuna eta giza neurri benetakoen aitormena. Kultura, edo marka, arragoa, sukaldea eta memoria, transmisioa, sehaska eta biblioteca, erakusleihoa, kontzientzia kolektiboa, pentsamendua eta bizitza, oinordetza eta konkista, bidaia eta arriskua, iraganetik datorren presente baten etorkizuneranzko tentsioa, hurkoaren deskubrimendua, espiritu kritikoa, askatasunaren egarria, mugarik gabeko eremua, jakin-minezko irrika eta giza kontzientziaren ase ezina, nahiaren eta ezinaren espresatu behar emaitzez ... Hori guztia eta gehiago kabitzen da kultura kontzeptuaren zakuan. Zibilizazioaren iturburua da kultura, eta, aldi berean, ondorioa. Abiapuntua, bidea eta jomuga da; arkuak, gezia eta itua. Bidaia.*

### **3.2 KULTURAK KONTAKTUAN JARTZEN DIRENEAN:**

Kultura desberdinen arteko kontaktuak modu askotan ematen dira. Historian atzera begiratzen badugu, kulturak kontaktuan jarri izan diren kasu gehienetan, gutxiengo bat eta gehiengo baten arteko harremanak izan dira, ez bakarrik kuantitatiboki (gutxiago dira indigenak) baizik eta boterearen jabekuntzaren arabera ere bai (Gereka, 2005). Botere desoreka hau, mundu osoan eman izan den kolonialismoa adibide argi bat da, grekoen eta erromatarren garaitik gaur egunera.

Jarraian ikusten den irudian (Berry, 1989, apud Bourhis & Leyens, 1996), akulturazio estrategiak taula baten bitartez azaltzen dira. Taula originala ezberdina den arren, zentzua berdina da eta oso modu bisualean ikusten dira akulturazio estrategien nondik norakoak.

		<b>1.GALDERA</b> Gutxiengo taldearen (indigenak) identitate ezaugarri kulturalak mantentzea garrantzitsua al da?	
		Bai	Ez
<b>2. GALDERA</b> Garrantzitsua al da beste talde batzuekin harremanak ezartzea eta mantentzea?(Indigenek gehiengo taldearen identitatea eta ezaugarri kulturalak bereganatzen al ditu?)	Bai	Integrazioa	Asimilazioa
	Ez	Banatzea Segregazioa	Dekulturazioa Marjinazioa

1. irudia: Akulturazio estrategiak (Berry, 1989, apud Bourhis & Leyens, 1996)

Ondorengo lerroetan Mikel Gereka-k (2005) landutako gradu amaierako proiektuan azaltzen dizkigun akulturazio jarrera ezberdinen nondik norakoak azalduko ditut:

1. **Asimilazioa:** Norberaren kultura propioa, gutxiengoa izan ohi dena, nagusitasun handiena duen kulturak ordezkatzeko du. Mundu osoko indigenen egoeraren ispilua da asimilazioa, norberak bere kultura ahazten duelako eta nagusi den kultura bereganatzen saiatzen delako. Honek kultura nagusien boterea eta kultura gutxituen desagertzea ekartzen du.
2. **Banatzea edo segregazioa:** Kasu honetan norberaren kultura mantentzen da, baina gutxiengoak direnekin ez da inolako harremanik sortzea bilatzen. Bakoitzak bere kultura mantentzea posible egiten du, baina errespetua oso murrizta izaten da eta ez dago hartu-emanik. Hego Afrikako "apartheid"-a adibiderik garbiena izango litzateke, edo urrutira joan gabe, Espainiako inperioaren "Republica de los Indios" deitutakoa.
3. **Dekulturazioa (Marjinazioa):** Jarrera honek kultura bat bere galbidera eramaten du, ez direlako ohiturak eta identitate kulturala mantentzen. Horrez gain, gehiengo kulturak ez du inolako harremanik finkatzea bilatzen. Jarrera penagarria da eta kulturen desagertzea ekartzen du. Euskaldunek Frankoren



garaietan pairatu zuten jarrera diskriminatzaile eta Ameriketako estatu askotan zein Australian ikusi daiteke "Lost Generation" delakoaren kasuan..

4. **Integrazioa:** Norberaren kulturako identitatea eta ohiturak mantentzen dira. Gainera, asko baloratzen da gehiengo kulturarekin harreman baikorrak eta hartu-eman izatea. Esan beharra dago askotan integrazioa asimilazioarekin nahasten dela, kultura gutxiak gehiengoa asimilatzen joaten delako, gutxiengoa ere errespetatua den arren. Integrazio kasuetan kultura gutxitua gehien bat eremu pribatua eta arlo publikoko eremu zehatz batzuetan.

### **3.3 MENDE TAKO ZAPALKUNTZA, ISILARAZTEA ETA** **IKUSEZINTASUNA:**

Kontuan hartuta munduan 350 milioi indigena daudela, hain zuzen ere munduko poblazioaren %7a (Arregi, 2012), lan erraldoia litzateke eta luzeegi joko luke munduko herri indigenek mendeetan zehar izan duten zapalkuntza azaltzen saiatzea eta ez da hori ikerketa xume honen xedea. Sarreran aipatu dudan moduan bilakaera horren zertzelada labur batzuk besterik ez ematen saiatuko naiz. Horretarako, lan honen tutorea dudan Joseba Arregi Oruen (2011, 2012 eta 2014) liburu eta idatzi ezberdinetan irakurritakoan oinarrituko naiz gehien bat, horiek izan baitira horrelako gai interesgarrira hurbiltzeko eta ikasteko parada eman didaten iturriak. Esan beharra dago bertan aipatzen dutena marko orokor batean oinarritzen dela eta hemen asko sakontzen ahalko zela.

Gaia mugatu eta errazteko, eta geroago azalduko dudan moduan, ezagupen pertsonalarengatik hurbilago dudalako, herri indigenak aipatuko ditudanean, Ameriketako herri indigenak izango ditut gogoan eta zehatzago Ekuadorreko Kichwa Otavalo herria. Halere, eta giza eskubideen bortxaketen azalpenetan, beste herri indigenak ere aipatu eta kontutan izango ditut.

Historian zehar herri indigenek mota guztietako giza eskubideen bortxaketa pairatu dute eta nolabaiteko hiru belaunaldi desberdindu ditzakegu bilakaera horretan:

## 1. Belaunaldia: Aro Koloniala

Kolonialismoaren lehenengo belaunaldia "errautsen gainean eraikitako mundu berria" izendatzen du Arregik (2012) eta bertan kolonizazioaren hasierak azaltzen ditu. Kolonoak Ameriketara iritsi zirenean elizaren eta aita santuaren onespina zuten eta betebeharrak bezala ikusten zuten kristautasuna hedatzea eta errege kristau baten gaineko kontrola ezartzea.

Kolonizazioa espero baino modu errazagoan burutu zutela azaltzen digu bertan, kolonoen ekintza militarri aplikaturiko teknologia berriak, indigenenak baino askoz aurreratuagoak zeudelako. Gainera, indigenek ez zituzten kolonoek ekarritako gaixotasun eta izurriteei aurre egiteko baliabiderik. Kolonoen jazarpena errazagoa izateko, herri indigenak "indio" kategoria ezkorra (primitiboak, basatiak, gobernu eza, nomadismoa, bortxa zaletasuna, zibilizazio eza...) eta estereotipatuak asmatu zuten eta bertako zibilizazioaren historia guztiz ezkututzen saiatu ziren, historia koloniala inposatuz (Arregi, 2012). Estereotipo hau zabaltzearekin bat, indigenek tutoretza behar zutela argudiatu zuten eta tutoretza hau jabe eta menekoen moduan ezarriko da. Lehen munduan jaso dugun ikuspuntua menderatzaileena izan da betidanik eta ondorioz, galtzaileen ikuspuntuak toki gutxi izan du.

Kolonoak herri indigenaren jakinduriaz (lurra jorratzeko gehien bat) baliatu ziren eta ez zieten inolako meriturik eman trukean, are gehiago, kolonoek eraikitako hobekuntzaren mitoa ezarri zuten. Gaur egungo AEB eta Kanadako nomadek ez zutela inolako jabetza eskubiderik ondorioztatu zuten eta hauek periferian eta pobrezian bizitzen hasi behar izan ziren, domestikatuak izatea edo diruaren truke kolonoentzat borroka egitera (ondoren indigenei ez zitzaientzin egindakoa ematen) aukera bakarra izatera iritsi zen arte. Indigenak basatiak eta gaiztoak izatetik, erabilgarriak edo domestikatuak izatera pasatu ziren. Kulturako jarrera ezberdinak aipatu ditudanean, domestikazioa asimilazioaren formarik basatiena izango litzake, indigenak kristau eta errege mendeko bihurtzeko aginduak boterean jarraitzen zuten bitartean.

Beraz, herri indigenen krisia hasi zen eta horrekin batera bertako herri subiranoen autonomiaren galeraren mugarrira izan ziren urte hauek. Kolonien aurrerakadak herri

indigenen atzerakada ekarri zuen. Orduan hasi ziren herri indigenak kolonoen mendeko (politiko, kultural eta ekonomiko) izaten eta gaur arte horrela izaten jarraitu du, 500 urtez "ikusezinak eta desagertuak" izaten (Anaya, 1992, apud Arregi, 2010).

## **2. Belaunaldia: Errepublikar Kolonialismoa**

Bigarren belaunaldi honetan zapalkuntza aktore berriak agertu ziren: estatu nazio errepublika amerikarrak. Kolonialismo mota berri honetan, urteetan koloniak izan ziren eremuek, ez zuten jatorriko herriari dirua ematen jarraitu nahi eta gestio propioa izan nahi zuten, nazio berri bat bezala agertuz. Horretarako, bertako indigenekin aliatu eta hainbat guda egon ziren non koloniak estatu propioak izaten bukatuko zuten. Adibiderik garbiena Estatu Batuetakoa den arren, luzera ia kolonia guztietara hedatu zen. Guda hauetan parte hartzen zuten herri indigenak domestikatzen bukatu zuten eta kolonoek zin egiten zizkieten gauzak ez zituzten betetzen.

XIX. mendean, errepublika liberal independente berriek jarri zuten martxan barne liberalismoa politikan. Bigarren belaunaldia "estatu-kolonizazioa eta herri indigenen domestikazioa" deitzen du. Belaunaldi honetan, kolonoek zuten eginbehar zibilizatzailearen nondik norakoak azaltzen dizkigu eta modernitatearen eta hobekuntzaren bermerako egin zutela kontatzen digu. Zapalkuntza hau guztia estatu berrien ekonomia-garapenaren eta nazio-eraikuntzaren izenean egin zuten kolonoek (Arregi, 2012).

Garaian, indigenek ez zituzten inolako eskubiderik, ez zirelako estatuaren parte. Ondorioz, kolonoak indigenak baino gehiago zirela esaten zuen mitoa zabaltzen hasi zen. Domestikazio plan horretan, indigenak beraien lurretatik bota zituzten eta lurralde arrotzagoetara bultzatu zituzten (periferiara), betidanik bizirauteko landu izan zituzten lurren jabegoa kenduz. Herri indigenek ez zituzten inolako eskubiderik kolonoen begietatik ikusten badugu. Alternatiba bakarra, kolonoekiko azpiratuak bizitzea edo diruaren truke borroka egitea ziren, kolonoen lege-trikimailuen bidez ondoren ezer ematen ez zuten arren. Asimilazioaren adibide garbi bat aurkitzen dugu garai honetan.

Kolonoen helburua estatu modernoa eraikiz ekonomia kapitalista inposatzea zen. Egoera horrela izanik, indigenak beraien lurretatik kanpo gelditu ziren eta ez zuten inolako bitartekaririk ezta ahotsik kolonoekin negoziatzeko. Indigenek eskubideren bat lortzen zutenean, kolonoek deuseztatu egiten zuten eta honen adibide argia da XIX. mendeko gaur egungo AEB-ko nazio zibilizatuei gertatutakoa eta "Malkoen Bidea" izenaz ezaguna den zapalketa etnikoa.

Kolonoek, oztopatzen zieten edozein sinesmen kultural desagerraraztea zuen helburu eta hau errazteko, mestizajearen diskurtsoa, ofiziala bihurtu zen herri kolonoen artean, adibidez Mexikon. Herri indigenak autonomia guztia galdu zuen eta herri kolonizatzailearen dependentzian erori ziren. Indigenek ekonomia berrian zuten leku bakarra nekazari edo behe-mailako langile izatea zen.

### **3. Belaunaldia: Globalizazioaren kolonialismoa:**

Hirugarren belaunaldia "Globalizazioaren kolonialismoa" edota "Olatu Garaikidea" deitzen da. Bertan II. mundu gerraren osteko eraginak azaltzen dira eta herri indigenek pairatutako etnozidio-ahaleginak ere (Arregi, 2012). Belaunaldi honetan, estatu askoren hazkuntza ekonomikoa herri indigenen lurretan dauden baliabideak hartuz eman dela azaltzen zaigu. Hau estatu-nazio moderno eta industrializatuen paradigma nagusia bilakatu zen, garaiko lehen, bigarren eta hirugarren munduan.

Herri indigenek zituzten baliabide naturalak anitzak zirenez eta kolonoen ustez nahikoa etekin ateratzen ez zitzaizkienez, indigenen kontrako oldartzea areagotzen joan zen industria sartu ahal izateko. Gainera, kolonoek lortzen zuten etekin ekonomiko hau, herri indigenaren esplotazioarengatik lortzen zuten. Botere harreman honetan, indigenei eskubideak, lurrak eta baldintza hobeagoak emango zietela zin egiten zieten, baina lana bukatzean indigenak galtzen ateratzen ziren, orokorrean ez zietelako zin egin zietena ematen.

Kolonoek, lurrari ahalik eta etekin ekonomiko handiena ateratzeak honen jabegoa ematen zuela barneratu zuten eta modu honetan eskubide osoa zeukatela aldarrikatzen zuten. Amazoniaren konkista, globalizazioaren kolonialismoaren ispilutzat hartu

dezakegu. Eraso hauen aurrean, herri indigenek modu ezberdinetako erresistentziak antolatzen joan ziren eta nazioartean ahotsa edukitzea ezinbestekoa zela ikusten joan ziren.

Belaunaldi honetan, hirugarren mundua kolonialista bihurtzen hasiko da etekinak ateratzen dituelako. Esate baterako, ezezagunagoa den kasuan, turismoaren bitartez etekin handiak aterako dira, bertako herri indigenen irudiak exotismo bat daukalako. Indigenen irudi exotiko horrek, herri indigenen irudi ezkor bat zabaltzen du, desagertzen ari den zerbait bezala zabaltzen delako eta ez delako herri indigenaren jakinduria eta garrantzia aipatzen ere. Modu honetan indigenak produktu izatera pasatzen dira. Turismoa esplotatzeko momentuan kontsumitzailearen ikuspegia zabaltzen da, eta ez bertako indigenena.

Azken kolonialismo mota honekin garapen iraunkor bat bultzatzea bilatzen da. Turismoak lana sortzen du eta gainera kanpoko herri dirudunak hurbiltzen ditu bertan dirua gastatzeko. Halere, arriskutsua da turismoa modu horretan esplotatzea, XXI. mendeko kolonialismoa delako, hau da, etiko mamua jantzi berriekin.

Turismoaren problematikan, esan dezakegu turismoan ikusten diren gauza politik izebergaren punta direla, hondartza politik, herri indigenen bizimodua ikustea bertako janaria jatea... Baina izeberga (AFS Intercultural Programs, 2010) askoz handiagoa da eta horren azpian pobrezia, indigenen irudi okerra, esplotazioa edo marjinazioa aurkitu dezakegu, beste hainbat gauzen artean (1. eranskina).

### ***3.4 LAUGARREN MUNDUAREN SORRERA ETA NAZIOARTEKO AKTORETZA POLITIKOA:***

Laugarren Munduaren sorrera, indigenek beraien biziraupenerako mobilizazio publiko eta ikusgarritasun baten behararekin batera agertzen da. Herri indigenek urteetan pairatu duten kolonialismoak ez dakar hauen desagertzea, mundu globalizazioak horrela erakutsi digun arren. Herri indigenek borrokan jarraitu dute, nahiz eta nazioartean inoiz ahotsik eduki ez duten. Hori dela eta ezinbestekoa da herri indigenek nazioartean ikusgarritasun bat lortzea eta horretarako Laugarren Munduaren kontzeptua sortu zen.

Laugarren Mundua definitzeko momentuan hainbat interpretazio egin ditzakegu. Bobiwash-ek (2001, apud Arregi, 2012)

*Laugarren Mundua munduko herri indigenen mundu gisa definitzen da -Ameriketako eta beste eskualdetako bertako jendea, euren lurraldeetan marjinalatuak izan direnak, gizarte zibiletik kanporatuak, aukera ekonomikoak ukatuak izan dituztenak eta "Konkistaren mitoak eta Aurkikuntzaren Dotrinak" estigmatizatu egin dituztenak-, hauek erori dira garapena izeneko determinismo ekonomikoak eraikitako eskailera faltsuaren azken mailaraino. Laugarren Munduko herriak- Andeatako goi-lurraldeetan, tundra eta Antartikoan, Amazoniako oihanetan, Australiako lurralde urrunetan, Siberiako taigan edota munduko hiri nagusien basamortu antzeko kaleetan, bai New York, Sao Paolo, Jakarta edo Nairobin aurkitzen direnak- globalizazioaren biktimak dira eta euren komunitateak neoliberalismoaren aurkako erresistentzia-guneak ditugu (ibid.). (p. 24)*

Herri indigenak nazio artean errekonozimendu bat edukitzeko, munduko beste herri indigenekin harremanak finkatzea eta zubiak eraikitzea garrantzitsua ikusi zuen. Beraz estatuarekin lotura handirik ez duen paradiplomazia lantzen hasi ziren, Laugarren Mundua ez delako gobernuaren egituraren zati bat. Modu honetan, herri indigenak elkarren artean eta beste estatu batzuen laguntzarekin errekonozimendua lortzen joan ziren.

1975. urtean Kanadako Herri Indigenen Nazioarteko Konferentziaren ondorioz, mundu osoan askapen-mugimenduekin harremana zuten herri ezberdinak elkartu ziren eta Laugarren Munduaren izenpean, nortasun pan-indigena sortu zen. Nortasun berri honen izendapenarekin gobernuarekin negoziatzeko leihoak ireki ziren giza eskubideen urraketen aurkako borrokan. Honen helburu nagusia nazioarteko prozesuetan ahotsa edukitzea eta indigenen partaidetza gogorragoa izatea izango da helburu nagusia.

### **3.5 HERRI INDIGENEN BORROKAN MUGARRI GARRANTZITSUENAK:**

Gertakari garrantzitsu asko eman dira indigenen borrokaren prozesuan, baina ondorengoak aipagarrienak edo eskubideen aldeko borrokan inpaktu handiena izan dutenak direla esan dezakegu.

Esan dezakegu indigenen eskubideen aldeko lehenengo mugimendu garrantzitsua 1923an eman zela. Urte horretan herri indigenek urteetan zehar landu eta bizia eman izan zioten lurren gaineko eskubidea aldarrikatu zuten. Horren aurrean, gobernuaren aldetik errepresio handia egon zen eta sarraski batzuk eman ziren. Ihes egitea lortu zuten indigenak elkartu egin ziren eta beraien lurrekiko eskubidea aldarrikatu zuten. Aldi berean, lan baldintzak hobentzeko eta errepresioa gelditzeko aldarrikapena ere egin zuten. Aldarrikapen hau munduko herri indigena ezberdinetara hedatu zen eta zenbait aktore indigenak nazioartera jo zuten aldarrikapenak ahots handiagoa izateko (Naciones Unidas, datarik gabe).

Hurrengo kasu garrantzitsuena 1989an eman zen. Urte mugituak izan ziren, bigarren mundu gerraren amaierarekin bat Guda Hotza etorri zelako eta herrialde askorentzat garai determinantea izan zelako. Mundu osoan zehar gertakari garrantzitsuak eman ziren: Berlinen harresiaren suntsitzea, Txinan Tiananmeneko gertakaria... Esan dezakegu neoliberalismoa finkatu zen urteak izan zirela.

Urte horretan Nazioarteko Lan Erakundeak hitzarmen bat sinatu zuen, 169 hitzarmena deitu zioten. Hitzarmen hau baino lehen, 107 hitzarmena egon zen eta honek herri indigena langileen baldintzak zertxobait hobetu zituen arren ez zen nahikoa izan, herri indigenak asimilazioan eroriak zeudelako. Honen aurrean, 169 (Arregi, 2012) hitzarmena sortu zen eta bertan bereziki herri indigenen eskubideez hitz egiten da. Helburu nagusia diskriminazio indigenarekin bukatzea izan zen. Gizon eta emakumeak lan duin bat edukitzeko eskubidea aldarrikatzen zen eta garapen iraunkorra eta pobrezia jaistea bilatzen zen nagusiki. 169 hitzarmenak kultura indigenen balio eta eskubideak aitortuko ditu eta haustura markatuko du mendetako tradizio kolonialistarekin.

1992. urtean Ameriketako konkistaren bosgarren mendea ospatzeko zenbait herrialdeetan (herrialde irabazleetan) ospakizun handiak egon ziren. Honek errebote handia ekarri zuen ordea, Amerikaren konkistan galtzaile atera ziren herri askok kontrako mugimenduak antolatu zituelako (M. Benedetti et al., 1989). Ospakizunen kontrako mugimenduak herri indigenen aldeko mugimenduen hainbat erakunde berriren bateratzea eta sorkuntza ekarri zuten.

2007. urtea garrantzitsua da herri indigenen borrokaren noranzkoan. Urte horretan, Herri Indigenen Giza Eskubideen Aldarrikapena sinatu zuten New Yorken. Nazio Batuen Erakundearentzat inflexio puntu garrantzitsu bat izan zen hau. Aldarrikapen

honen bidez, herri indigenekiko urratu diren giza eskubideak berriz ez urratzea bilatzen da.

Deklarazio honetan, herri indigenek dituzten eskubideak aldarrikatzen dira. Bereziki, hauek beraien lurretan, baliabideetan, hizkuntzan, osasunean, hezkuntzan eta kulturaren dituzten eskubideetan. Indigenek beraien identitate politiko propioa izan dezaketela defendatzen du deklarazio honek. Herri indigenek beraien instituzio propioak mantentzeko eta indartzeko eskubidea zutela azpimarratzen du idatzi honek. Indigenek dituzten beharretara egokitutako garapen bat izan dezaketela ere esaten da. Teorikoki, idatzi honek indigenekiko bazterkeria kondenatzen du eta hauen partaidetza bultzatzea bilatzen du garapena guztiontzat onuragarria izan dadin.

### **3.6 SUMAK KAWSAY:**

Sumak Kawsay Ekuador eta Bolibian sortu zen neologismo bat da, kitxua hizkuntzan *bizitza bere osotasunean* esan nahi du. Herri indigenen sorkuntza bat da eta hasiera batean guztiz karakter indigena duen ideia bat izan zen, gerora XXI. mendeko sozialistek ere ideia bereganatu zuten arren. Funtsean, proposamen honek sozialismo europarretik haratago joatea du helburu. Proposamen honek ez du inongo etekin ekonomikoa bilatzen eta gogor kritikatzeko du industria eta garapena, honek min handia egin duelako indigenen historian urteetan zehar. Honen orde, ama-lurrarekin dugun konexioa eta honek ematen diguna defendatzera bultzatzen du, lurrarekin errespetuan eta orekan bizitzeko gehiago behar ez delako. Herritarren artean inolako maila hierarkiakorik ezarri gabe eta modu komunitarioan lana egitea bultzatzen du proposamen honek (Arregi, 2012) .

Hasiera batean Ekuador eta Bolibian sortu zen arren, gerora mundu guztietako herri indigenak (baita sozialistek ere) bereganatu zuten ideia hau, pentsamendu eta herri indigenarekin errespetu gehien duen ideia delako. Indigenek indigenen defentsarako sortutako proposamen bat dela esan dezakegu. Normalean indigenen eskubideak beste herri batzuk zehazten zituzten eta proposamen honekin kontrakoa gertatzen da. Sumak Kawsay benetako proposamen indigena dela esaten dudanean, herri indigena, hizkuntza indigena eta borroka indigenan sortu delako esaten dut.



80 eta 90. hamarkadan zehar, indigenek lan handia egin zuten sistema globalitario tekno-industrialari kritika egiten. Munduari ohartarazi zion, indigenak soilik ez ezik, mundu guztiak jasango zituela ondorioak planeta ustiatzeko erritmo horrekin jarraituz gero. Indigenek ekologia-eremuan izandako partaidetza oso handia izan da eta munduari begiak zabaltzen ahalegindu dira. Honek zentzu handia duela ikusita, agenda politikoan presentzia eta indar handia lortu dute mundu mailan.

Sumak Kawsay gogoratzen digu garapena, ongizatea, aniztasun etniko eta biologikoa, demokrazia, ekonomia eta autodeterminazioarekin lotua dagoela. Honekin batera, indigenek pobrezia globalizazioaz hitz egiten digute eta honek sorturiko demokraziaren krisia salatzen dute. Indigenek mendeetan zehar jasandako eskubideen txikitzeak salatzen ditu eta gizarte-hitzarmen berria sinatzeko behar handia dagoela adierazten du. Botereen berrantolakuntzari beste ikuspuntu bat ematea ezinbestekoa da.

Proiektu hau interesgarria da indigenen eskaera lokalak kezka globalarekin uztartzea lortu delako. Naturaren kontserbazioa, aldaketa klimatikoa, krisia, energia-arazoak, jaki-subiranotasuna, giza eskubideen urraketa, kultur aniztasuna, demokrazia eta partaidetza zein gobernantza partekatua izateko eskaerak globalak dira proiektu hau burutu zenetik. Indigenak justizia unibertsala lortu nahi duten mugimenduen erreferentziazko adibide argia dugu.

Lanketa honekin, indigenek mendeetan pairatutako txikizioa ikusten laguntzen digu. Proiektuaren jatorria garapen-modeloaren kritikan oinarritzen du. Herri indigenen kultura, historia, errealitatea eta egungo borroka kontuan harturik garatu da. Ongizatea ez doa jabetzarekin, ekoizpenarekin edo kontsumoarekin lotuta. Beraz, Sumak Kawsayek gogor kritikatzeko du garapena, hau lortzeko beste gizaki batzuk edo natura bera zapaldu beharra delako. Luxuak, zuhurkeriak eta kontsumismoak garapena ekartzen du mundu indigenaren begietan.

Indigenek euren lurraldea ez dute balio ekonomiko bezala ulertzen. Biziaren parte diren tokia da lurraldea eta honek arima dauka, bertan bizi garen denok bezala. Maila espiritualean, bizidunak eta bizigabeak intimoki lotzen dira. Ama-lurra herri-nortasunarekin, gizarte-egiturarekin eta ekosistemarekin bat doa. Ama-lurra ezin da zatitu edo saldu, talde jabegoa da.

Osasun sistema propioa mantentzea ere Sumak Kawsayen helburuetako bat da. Urteetan izandako osasun sistema osasun zientifikoarekin uztartzea positiboa izango zen bai indigenentzat eta baita mundu globalizatuarentzat ere. Osasuna ingurumenarekin lotzen da herri indigenetan eta horretarako ezinbesteko ikusten dute hau garbi mantentzea eta errespetatzea.

Funtsean, bost ardatz aipatzen ditu proiektu honek 1. Iraultza etikoa. 2. Iraultza sozioekonomikoa. 3. Iraultza politikoa. 4. Aberri duina eta solidarioa. 5. Latinoamerika mailako integrazioa (Arregi, 2012).

Ideiak paper gainean oso polita ematen duen arren, gaur egun bide luzea dago aurretik Sumak Kawsayek azaltzen duen ideia aurrera eramateko. Gaur egun, gero eta latzagoak dira natur baliabideak esplotatzeko egiten diren txikizioak. Herri indigenetako baliabide naturalak esplotatzen jarraitzen dute oso erritmo kezagarrian. Munduko sozialismoari erruaren zati bat botatzen diote, sozialismo honek etekin ekonomikoarekiko duen ideiak Sumak Kawsayekin talka egiten duelako.

### ***3.7 LAUGARREN MUNDUA ETA EUSKALDUNAK, KULTURA AGONIKOEN ARTEKO LOTURAK:***

Euskal herriak eta euskaldunek lotura historikoa daukate herri indigenekin. Atzera begiratzen badugu, euskaldun askok aro kolonialean parte hartu zuten arren, badira zenbait pasarte non euskaldunak herri indigenekin harremanak eta elkarbizitza izan zituzten. Esan beharra dago herri indigenen eta euskaldunen arteko lotura egon zen arren, ez dela sekula gehiegi aztertu.

Halere, zenbait pasartek argi uzten dute historikoki harremana izan duten bi herriren kasu bat dela (Arregi, 2013). Terranovako kasua aipagarrienetako bat da. Bertan, badira idatziak non argi geratzen den euskaldunak eta Terranovan bizi ziren herri indigenak elkarrekin bizi izan ziren modu baketsu batean. Ez zegoen inolako botere harremanik eta elkarrengandik ikasteko saiakerak egon ziren.

Terranovako indigenen eta euskaldunen lotura aztertu zuen Danimarkako Unibertsitateko hizkuntzalari eta antropologoa da Peter Bakker, "Apaizac Obeto"

liburuan (Maia, 2006) agertzen zaigun bezala. Nire esperientzia propioarekin lotuz gero, esan beharra dut Peter nire gurasoen ezaguna dela, honek Euskal Herrira ikerkuntza egiten zuen bitartean nire gurasoen lagun egin baitzen Euskal herriko bale arrantzaleen aztarnak jarraitzen ibili ondoren, euskararen eta bertako hizkuntzaren arteko *Pidgin-a* (bi hizkuntzen arteko nahasketa elkar ulertzeko tresna bezala) egon zela ondorioztatu zuen.

Herri indigenek kolonialismoaren atzaparretatik ateratzeko momentuan ere, euskaldun asko ez ziren kolonialismoaren taldean sartu. Euskaldunak herri indigenen independentzia prozesu batzuen parte izatera iritsi ziren XIX. mendean. Herri indigenen zapalkuntza kondenatu eta indigenek urteetan jorratu zituzten lurren gaineko eskubideak aldarrikatuz. Sabino Aranak, famatua egin zen idatzi batean aipatzen du Ipar Ameriketara emandako kolonialismoaren kontrako jarrera.

Harreman historikoa alde batera utzita, Landabururen (1998, apud Arregi, 2013) esanetan, egoera agonikoan dauden herrialdeen artean lotura psikologiko bat aurkitzen dugu. Lotura psikologiko hau, diskriminazioa eta etnozidio saiakerak pairatu dituzten herrien artean ematen da bereziki.

Euskal Herria nazio gabeko herri bat denez, egoera berdinean dauden herrialdeekin nazioarteko harremana bultzatzen saiatu izan da betidanik, botereak elkartzeko eta herri hauen ahotsa urrunago iristeko. Alor honetan, Euskal Herria herri indigenentzat eredu den herrialde bat izan da, euskararen biziraupena eta neurri batean, herriaren autonomia lortu dutelako. Horrez gain euskaldunek hezkuntza eredu propio bat sortzeagatik ere eredu izan dira herri indigena askorentzat.

Euskaldunak herri indigena askorentzat eredu direla baieztatzen duen lekuko da berri hau. UNAM-eko ENALLT (Escuela Nacional de Lenguas, Linguística y Traducción) elkarteak eskaintzen duen tailer bat da eta Etxepare institutuarekin elkarlanean aritu dira, koordinatzailea Haizea Elizondo Gorroño delarik (Euskal Diaspora eta Kultura, 2012). Bertan, Mexikon eskaintzen den tailer bat aurkitzen dugu. Honen helburua munduan galtzen diren milaka hizkuntzen (eta hizkuntzarekin batera kultura eta jakintza) desagertzearen arrazoia azaltzea da. Tailer honetan, euskararen biziraupenaren prozesua azaltzen dute hizkuntza bat ez galtzeko jarraitu beharreko pausoak bezala.

Euskaldunek eta herri indigenek beraien artean laguntzeko saiakeretan, euskaldunek ikerkuntzak egin dituzte oso estereotipatuta dagoen herri indigenen egoera agonikoaren inguruan. Ikerkuntza hauetan herri indigenek estatuko politikan entzunda izateko dituzten arazoak azaleratzen ditu. Herri indigenak estatuaren barneko arazo edo problematika bat bezala ikusten dira, ez nazio propio bat bezala. Estatuak ez dituzte aintzat hartzen herri indigenen eskubideak eta honek gatazka egoera bat sortzen du non herri indigenak estatuaren oposizioa bihurtzen diren (Arregi, 2013). Estatuak herri indigenen gain duten kontrola (kulturala, ekonomikoa eta territoriala) eta zapalkuntza, herri indigenek Laugarren Munduaren terminoa sortzearen zergatia da, estatuak jorratzen dituzten garapen planak herri indigenen interesen kontra doazelako. Kolonialismo gordina gaur egungo munduan.

Egoera aztertu ondoren eta euskaldunek ikerketak egin ondoren, herri indigenak hilda ez daudela zabaldu nahi dute. Egoera agonikoan egon izan diren arren, ez da komeni desagertzen ari diren indigenen irudia zabaltzea. Horren ordez, hauen ahotsa nazioartean zabaldu beharra da eta pairatu dituzten giza eskubideen urraketak salatu beharra dira, beraien bizimodua hobetzeko eta aliantzen bitartez indigenen identitatearen izana birsortzeko eta munduak dituen erronkei aurre egiteko.

Funtsean, aipatu beharra dago indigenekiko dagoen solidaritatea arriskutsua izan daitekeela. Solidaritate honek desagertzen ari diren indigenen irudia zabaltzen duelako. Nazio gabeko herrien eta herri indigenen artean lotura psikologikoa dagoen arren, atentzia jarri beharra da herri bakoitzaren bilakaera historikoan. Prozesu honetan hauen arteko dialogoa oso garrantzitsua da, modu honetan ikuskera zabalago bat edukiko delako indigenen autodeterminazioa lortzeko bidean.

#### **4. IKERKETAREN HIPOTESIA, HELBURUA ETA METODOLOGIA**

- **Hipotesia:**

Ikerketa hau aurrera eraman baino lehen, gaiaren inguruan zenbait aurreiritzi eta hipotesi eduki ditut. Hipotesi nagusia, Otavaloko Kichwa kulturaren egoera nahiko

agonikoa dela izan da hasieratik. Nire Otavaloko esperientzia oinarritzat hartuta, aurreko generaziotik oraingo generaziora transmisio falta bat egon dela uste dut, eta ikerketa hau aipatzen dudana benetakoa den edo ez ikusteko baliagarria dela uste dut.

- **Ikerketaren helburua:**

Nire helburua, elkarrizketatuek bizi izan dituzten bi generazio hauen konparaketa egitea izango da, generazio ezberdinen ikuspuntuak kontrastatzeko. Sakoneko elkarrizketa hauen bidez, azken urteetan indigenen bizimodua, borroka, presentzia eta ikusgarritasunak aurrera edo atzera egin duen azaleratu nahi dut.

- **Ikerketaren metodologia:**

Ikerketa burutzeko erabilitako metodologia ikerketa sozio historikoarena izan da. Ikerketa hau guztiz kualitatiboa da eta informazio bilaketa bat egitea du helburu nagusitzat, ondoren ondorio batzuk atera ahal izateko eta urteekin ikertua izan den gizarteak izan duen bilakaera aztertzeke.

Nire ikerketa aurrera eramateko, niretzat ezagunak diren Otabalo herriko 4 indigenekin hitz egin dut eta elkarrizketa bat egin diet (2. eranskina). Elkarrizketa hau 30 galderaz osaturik dago. Lau pertsona horietako hiruk, idatziz erantzun didate.

Bi generazio ezberdinetako lau pertsona elkarrizketatu ditut. Modu honetan, 80ko hamarkadan helduak ziren bi pertsona eta XXI. mende hasieran gazte izan direnak elkarrizketatuz ondorioak aterako ditut.. Adin ezberdinetako eta leku berean hazi eta bizi diren pertsonen testigantza baliagarria da azken urteetan eman diren aldaketak ikusi ahal izateko.

Elkarrizketatu ditudan pertsonen artean, indigenen mugimenduan modu aktiboan parte hartu duten pertsonak aurkitzen dira. Hauetako bat Otavalon zinegotzi lanetan aritu den indigena bat da. Beste bat, munduko ONG ezberdinetan lanean ibili da urte askotan. Hirugarrena Kichwa hizkuntzaren berreskurapen eta mantentzean oso murgildua egon da eta zenbait bidai egin ditu mundu osoan zehar (Euskal Herria barne) kichwa hizkuntzaren egoerari buruzko hitzaldiak ematen. Azkena, Otavalon bizi den neska gazte baten testigantza dugu.

## 5. IKERKETA

### ***5.1. Otavalo eta Otavalotarrak:***

Ekueadorren 17.200.000 pertsona bizi dira eta horietatik 1,1 milioi indigenak dira, bilatzen dugun iturriaren arabera datuak aldatzen diren arren. Izan ere, zaila da indigena zein den definitzea eta are zailagoa zenbat diren zenbatzea.

Otavalo Ekueadorren kokatzen den hiri bat da, Imbabura izeneko probintziaren iparraldean kokatzen da eta bertako bigarren hiririk handiena da lehenengoa Ibarra hiria da (IWGIA, 2019).

Otavalo hiriari, "Ekueadorreko Hiri Interkulturala" deitzen zaio, kulturalki eta historikoki oso hiri aberatsa izan delako betidanik. Kichwa herriaren jatorrizko lekua da Otavalo. Kichwa herritarrak famatuak dira beraien esku lanengatik eta artisau bikainak izateagatik, bereziki ehungintzan. Hori dela eta, Otavalon Latinoamerikako indigenen artisau azokarik famatuen kokatzen da, "Pontxoen plaza".

Otavalotarren estetikari dagokionez, gizonezkoek ile luzea edukitzen dute motots batean bilduta. Galtza zabalak janzen dituzte eta askotan pontxoak edukitzen dituzte (GoRaymi, s.f.). Oso ohikoa da txapelak ikustea. Emakumeak aldiz gona bat eta blusa bordatu txuri bat janzen dute. Hauek ere mototsean biltzen dute ilea eta txapelak janzen dituzte.

Herri honek unibertsoa, lurra eta pertsonak armonian mantentzen dituen mundu ikuskera batean sinesten du. Otavalo herriak harreman berezia dauka bertako mendiekin, sumendiekin eta lakuekin. Imbaburako Taitak eta Mama Cotacachik (bertako sumendien izenak) herriaren sinesmenak irudikatzen dituzte eta bertan erritual sakratuak egiten dituzte.

Herri honek aldaketa handiak pairatu ditu urteetan zehar. Lurrarekin duten harremana mantentzen den arren, gero eta jende gutxiagok jarraitzen dute herriaren ohitura zaharrak globalizazioaren ondorioz. Betidanik artisau onak izan direnez, kapitalismoaren atzaparretan erortzen joan dira. Nazioarteko komertzioan gora egin duten era berean, herriaren ohiturak eta lurrarekin eta unibertsoarekin lotzen dituzten sinesmenak galduz joan dira.

Esan beharra dago Otavalon beti ez zela ekonomia arrakastatsua izan. XX. mendeko 50. hamarkadan, kolonialismoak utzitako errepresio arrastoaren ondorioz, ekonomia bizirauteko ezinbestekoa zen zerbait izan zen eta ez zegoen inolako soberakinik. Garai horietan indigena izateagatik diskriminatzen zitzairen eta pobreak bezala ikusten ziren. Diskriminazio honen ondorioz, familia askok bizimodua aldatzea aukeratu ziren eta hirietara jo zuten. Aldaketa hau Pegucheko (Otavalo inguruko herrixka bat) herriak antzeman zuen eta Otavalotarren kultura galtzeko beldurrez, berreskurapen plan bat abian jarri zuen. Berreskurapen plan hau gehien bat kultura baloratzeko eta hedatzeko asmoarekin egin zen.

Prozesu horrek nolabaiteko arrakasta izan zuen eta bertako jendeak Otavalotar kultura mantentzearen altxorraz jabetzen joan ziren. Musikaiei, artisauei eta komertzianteei beste begi batzuekin ikusten hasi zitzairen eta generazio berrietan nolabaiteko indigena izatearen harrotasuna zabaltzen hasi zen, indigena izatearen lotsa atzean utziz (Lema, 1995). Gaur egun, hezkuntzaren eta produkzioaren bitartez sentimendu hau indartzen ahalegintzen dira. Horretarako herriaren ohitura sinbolikoak mantentzen dituzte eta kichwa hizkuntzako izen asko jartzen dituzte.

## ***5.2 Galdetegia:***

Lehenago aipatu dudan moduan, galdetegia 30 galderaz osatua dago (2. eranskina) eta Ekuadorreko Otavalon bizi diren lau pertsonak erantzun dute. Bi 30 urte ingurukoak dira eta beste biak 60 urtekoak, beraz, bi belaunaldiko kideak. Galdetegiaren eranskinean, 1, 2, 3 eta 4 zenbakiekin agertzen dira.

Lehenengoa, Marisol Campo, Otavalon bizi den 30 urteko emakume langile bat da.

Bigarrena, Francisco Campo "Pachito" 60 urteko "Inka Pirka" G.K.E-ko (gobernuz kanpoko erakundea) kidea. Erakunde honek Holandako fondoak jasotzen ditu eta garapen jarduera ezberdinak aurrera eramaten ditu Peguche, Otavaloko komunitatean. Nik pertsonalki ezagutzeko aukera eduki nuen etxe komunal bat dute zentro bezala eta han antolatzen dituzte ekintza ezberdinak: formakuntza tailerrak, emakumeak ahalduntzeko ikastaroak, "huahua huasi" edo haurtzaindegiak, "mingak" edo auzolanak etab.

Hirugarrena, Pacha Cutic Lema, aita kichwa otavalotarra eta ama holandarra duen 34 urtetako gizona. Peguche komunitateko zinegotzia da eta bera izan zen ni Ekuadorren egon nintzenean anfitrioi. Niri eta nirekin zetorren lagunari beraien komunitatean eta beraien etxean besoak zabalduta hartu ziguten. Beraien bizimoduaren eta kulturaren berri galdetzen genuenean gustuz erantzuten ziguten gure zalantzei eta gure bidaia ahalik eta onena izateko aholkuak eman zizkiguten.

Laugarrena, Imbaya Cachihuango (3. eranskina). 60 urte ditu eta Otavaloko munizipalitatean lan egiten du gaur egun. Bere herriarekiko eta indigenaren borrokarekiko militante sutsua. Euskal Herrian egon zen 2013an Mondragon Unibertsitatearen eta Garabiden eskutik hizkuntza gutxituen bizi-berritasun gaiaren lanketan kichwa otavalotarren ordezkari gisa. Euskal Herria eta euskara baina 1992an ezagutu zituen, "Ameriketako aurkikuntzaren" 500 urteurrenaren ospakizunak salatu eta indigenen ikuspegia aldarrikatzeko antolaturiko ekintzetan parte hartzen zuen bitartean, nire gurasoen etxera etorri zenean.

Cachihuangok 3 ordu baino luzeago den elkarrizketaren audioa bidali zidan eta oso ekarpen aberatsak eman dizkigu. Horregatik bere aipamenak ugariagoak izango dira datozen ondorioetan.

### ***5.3 Ikerketaren emaitzak:***

#### **5.3.1 Indigena izatea:**

"Natibo" izatearekin lotzen dute. Aspaldiko kultur zaharreko kidea eta gutxitua den hizkuntza bateko kidea izatearekin, gehiengoarengandik desberdintzen dionarekin. Beraz, "gu" eta "beste", bi kategoriak planteatzen dituzte, alegia, gu indigenok, eta besteak, indigenak ez direnak. Mendebaldean, gure artean denbora luzez eta oraindik ere mantentzen den "indio basatiaren" irudiarengatik oso irudi desberdina. Harro daude diren bezalakoak izaten eta hori erakutsi nahi diote munduari.

Argi dute "Kichwa-Otavaloko" taldeko kideak direla guztiak. Nazio Kichwa-ren partaideak. Tawantinsuyu-ko inken konfederazio handia izan zenaren ondorengoak. Gaur egun Ekuador izeneko nazioan, Imbabura bailaran kokatzen den herria.



Indigena izateak esan nahi du arbasoengandik jasotako lau zutabe mantentzen dituztela: lurra, filosofia edo sinismen batzuk (kosmobisioa), historia eta hizkuntza. Horiek besteengandik desberdinu eta nortasun propioa ematen dizkiete. Zutabe horiek dira hain zuzen ere, mendeetako kolonizazio eta zapalkuntzan borroka iturri izan direnak eta herri indigenen desagertaraztea eta asimilazio edo domestikazio prozesuetan erabilitako tresnak.

### 5.3.2 Terminologia:

Indigenen gaitan terminologia ugari erabili izan ohi da eta horiei buruz galdetu zitzaizen gure lagineko kideei.

**Mestizoa:** orokorki nahasketarekin lotzen dute, azal zuriko pertsona indigenarekin nahasia dena, baina baita ere indigena izateari uko egin dion pertsona. Ez da erosotasunez erabiltzen den terminoa, klasismoarekin, maila ekonomikoarekin eta prestigioarekin ere nahasi daitekeelako. Biologiarekin lotzen dute, europar eta indigenen arteko nahasketa. Dena dela, biologiaren eremua gaintzen duen oso planteamendu interesgarria azaleratzen du Imbaya Cachiungo, lagineko kideak honekin loturik. Mestizoa nahasketa baldin bada, gaur egungo mestizo gehienak elebakarrak dira, alegia, gaztelaniaz besterik ez dute egiten eta beraien nahia da ahalik eta gehien aldentzea indigena izatearekin. Zer nolako nahasketa dute biologikoaz gain? Orduan, agian gu geu, indigenok gara benetako mestizoak, izan ere, bi hizkuntza ezagutu eta erabiltzen ditugu, eta bi kultura eta bizi eta pentsatzeko bi moduen artean bizi gara. Gauzak horrela, eta gorago marko teorikoan azaldutako Berryren akulturazio estrategien koadroan azaldutakoa kontutan hartuta, ikuspegi biologikoan oinarritutako mestizoek, asimilatu edo domestikatutako taldea osatuko lukete, eta indigena elebidun aktiboak integratutakoen taldea.

**Cholo:** termino peioratiboa da eta mespretxuz erabiltzen ohi dena. Zuria eta beltzaren arteko nahasketa izango litzateke, baina baita “indio txiroa” deskribatzeko, emakumeak gehiagotan, “chola cuencana”, kichwarrak ez direnak.

**Gringo:** ile argia eta azal zuriko pertsona atzerritarrak dira. Gehienetan turista guztiak sartzen dira talde honetan. Kanpotarra da.

**Mocho:** Kichwerako “muchu” izenetik dator, eta “moztutakoa” esan nahi du. Ilea moztu izan duen gizonezko indigena izendatzeko erabiltzen dute (kamufilatutako jendea ere deitzen diete). Orokorrean gaizki ikusia dago, ilea luzea izatea indigena izatearen nortasunarekin lotzen baitute eta marka indartsu bat da “gu” eta “besteak” alderatzeko unean. Kolonialismo garaian matxinoak zigortzeko erabilitako praktika izan zen ilea moztearena eta gaur egun erresistentziaren ikurra da.

Asko gorapatzen dute ile luzea izatea eta sakratua, nortasunaren ikurra eta maskulinitatearen ezaugarritzat dute. Kulturari errespetua adierazten dio eta infinituaren errepresentazioa islatzen du. Bitxia da mendebaldeko ikuspegirako, gizonezkoen ile luzeak maskulinitatea adieraztea eta gazte indigena batzuek ilea moztea matxinada adierazteko.

Halere, zenbat momentutan gizonezkoak ile luzea eramateak diskrimazio iturria suposatu dezake. Cachihuangok dio ez dela beti erraza izan ile luzea eramatea eta indigena izatea “indartsuentzat” dela, eta horregatik Ekuador ahuleziaz beterik omen dago gaur egun. Bi giza taldek eramaten dute ile luzea Ekuadorren, kichwa-otavalotarrak eta kichwa-saragurotarrak. Nortasunaren ikurra da beraientzat eta mozteak asimilazioaren onarpena dakar beraientzat.

Cachihuangok Euskal Herriari egiten dio erreferentzia, han ikasi baitzuen, nortasunak, izaerak, zerikusi handia duela hizkuntzarekin eta horren lekuko Euskal Herriko ahalegina eta emaitzak hizkuntza bizi-berritzean. Horrela mintzatzen naiz eta horrela agertu nahi dut munduan. Berak dio berdina dela ile luzea izatearen gaia. Ez da bakarrik tamaina edo moda, baizik eta horrek transmititzen duena, nortasuna eta pentsamoldea. Energia da eta arbasoengandik jasotako jakintza eta usadioa.

### **5.3.3 Hizkuntza:**

Gure lagineko bi gazteen ama hizkuntza edo jatorrizko hizkuntza gaztelania izan zen nahiz eta kichwa ongi ulertzen duten. Bi nagusien ama hizkuntza berriz, kichwa izan zen. Gaztelania beranduago ikasi zuten eskolan. Bi belaunaldien arteko desberdintasuna dago hizkuntza transmisioarekin. Helduek gurasoengandik jaso zuten kichwa hizkuntza

modu naturalean, gazteek berriz ez. Etxean eta kalean jaso zuten, baina gaztelaniaren ondoren.

Erabileraren aldetik, familian gaztelania eta kichwa erabiltzen dute, gaztelania gehiago gazteagoak direnen artean, eta kichwa berriz helduagoak direnekin. Lanean, bi hizkuntzak erabiltzen dituzte aurrean duten pertsonaren arabera, baina gaztelania gailentzen da, gehiengoak ez dituelako bi hizkuntzak menperatzen. Komunitatean ere bi hizkuntzak erabiltzen dituzte ahozko mailan, berriro ere kichwa pertsona helduekin gazteen artean baino. Hirira, Otavalora geroz eta gehiago hurbilduz, gaztelaniaren presentzia handiagoa izaten da. Erakunde ofizialetan, argi eta garbi gaztelania gailentzen da.

Hizkuntza idatziaren aurrean, gaztelania nagusitzen da guztiz eremu guztietan, pribatu nahi publikoan, heldu nahiz gazteen artean. Orokorrean erosoago sentitzen dira eremu publikoan gaztelaniaz egiten eta kichwa eremu pribatuarekin eta adineko jendearekin lotzen dute gehiago.

Euskara bezala, diglosi egoeran aurkitzen da kichwa hizkuntza, gaztelaniak hizkuntza funtzioak pixkanaka eta etenik gabe jan eta bereak egiten doala argi ikusten da. Erabilera gutxitzen doa eta gazteagoa den belaunaldiak aurreko belaunaldiak baino gutxiago erabiltzen du kichwa. Hiztun "pasiboak" identifikatu dituzte, alegia, kichwa jakin bai, baina erabiltzen ez duten komunitateko kideak.

Halere, kichwa, hizkuntza propioa, oso garrantzitsutzat ikusten dute eta kultura eta beraien izaerarekin lotzen dute; "besteekiko" desberdintzen dien tresna da. Ez da komunikatzeko hizkuntza bakarrik, baizik eta beste filosofia eta mundu ikuskera bat ahalbideratzen dien tresna; bizitzeko beste modu bat. Gazteek gaztelania gorai patzen dute ikasteko eta interneta erabiltzeko. Aspektu hau prestigioarekin ere loturik egon daiteke. Euskararekin garai batean gertatu zen bezala, eremu pribaturako gordetzen den hizkuntzak, eremu publikoan erabili eta nagusitzen den hizkuntzak baino prestigio gutxiago du. Alegia, "indioen" hizkuntza gutxitua ez da aproposena eremu guztietarako, normalizatua eta nagusia den hizkuntza, gaztelania kasu honetan, bai den moduan.

Beraien seme-alabek zein hizkuntzatan eskolatzen diren galderari erantzutean guztien adostasuna dago: gaztelaniaz. Orain dela 25 bat urte martxan dago Kulturarteko Sistema Elebiduna (Sistema Intercultural Bilingüe) baina diotenez, hasieratik akatsekin eta

inposizioz jaio zen proiektu bat izan da. Teorian hor dago, baina praktikan ez da ia existitzen arazo desberdinak medio direla: motibazio eta prestigio eza eta irakasleriaren formakuntza eskasa alde batetik eta bestetik ez dela ikusten horren beharra, kichwa gero eta gehiago dagoelako eremu pribatura murriztua. Adibide argi bat azaltzen du Cachihuangok bere seme-alabekin: betidanik egon ziren eskolatuak Kulturarteko Sistema Elebidunean, baina halere, batek kichweraz hitz egiten du lagunekin erabiltzen duelako, bigarrenak ulertzen du baina ez du erabiltzen eta hirugarrenak pixka bat ulertzen du baina ez du ezer hitz egiten. Berrero ere, transmisio falta eta etengabeko galera prozesua. Alerta laranja dio berak, baina gorria ere badela uste dut nik, bere hitzak erabiliz *“Es un autoengaño: Ecuador es prácticamente monolingüe. Tiene la pobreza de no ser siquiera bilingüe”*

Hizkuntzaren bizi-berritze, bermatze edo indartze egitasmorik ezagutzen dituzten galdetzean, “Radio Iluman” izendatu eta baloratzen dute, Imbabura probintzian % 100 kichwaz emititzen duen irratia. Bestalde, “Kichwasun” egitasmoa azaldu du Cachihuangok, kichwa indarberritzeko Imbabura probintzia mailan sorturiko taldea. Mondragon Unibertsitatean diglosia egoerari aurre egin eta hizkuntza biziberritzeko tresnak aplikatzeko formazioa jaso zuten taldeko kide batzuk eta helburu bikoitza dute: intzidentzia politikoa, hizkuntza eskubideak bermatzeko eta aktibismo digitala kichwaren presentzia sare sozialetan eta interneten indartzeko.

Euskal Herriko hezkuntza sistema goraiatzeko du hizkuntza indar berritzeko eredu moduan eta bereziki gurasoak inplikatzen dituen lanarengatik.

Unibertsitate mailan, egon badaude ikasle indigenak eskubide eta betebeharrak berdinekin, baina arrazakeria ere jasaten dute hainbat kasutan. Bestalde, irakasle indigena oso gutxi daude eta goi-mailako karguetan ez dira ikusten. Kichwaren presentzia eskasa da eta bakarrik irakasgai bezala aurkitzen da ikasketa gutxi eta konkretu batzuetan.

#### **5.3.4 Legedia eta mugimendu indigenak:**

Laginak ongi baloratzen du egungo Ekuadorreko konstituzioa. Herri desberdinak onartu eta defendatzen ditu eta Ekuador etnia eta kultur anitzeko nazioa dela kontsideratzen du. 2008ko konstituzioak kichwa eta suhar hizkuntzak ofiziala bezala errekonozitzen ditu

nazio mailan eta beste 14 hizkuntza koofizialak beren erabilera eremuetan. Egoera honetara iristeko pausuak aspaldi ematen hasi ziren eta aurretik izandako presidentek ere (Roldós, Rodrigo Borja, Sixto Durán..) keinuak egin zioten kichwa hizkuntzari eta hori ere erabili izan zuten beraien diskurtsoetan. Halere, Cachihuangoren ustez, herriak ez zuen oso serio hartu ireki berriak ziren ateak eta ez zen gehiegi aurreratu. Rafael Correak ekarritako 2008ko konstituzioak gauzak serioago hartzen ditu eta kulturartekotasuna ezinbestekotzat jotzen du Ekuadorreko herri guztien parte hartze soziala bultzatzeko. Teoria hor dago, baina gero ez ziren gauzak behar adina praktikara eramane eta Cachihuangoren ustez mugimendu indigenistek ez zuten idatzita zegoen deklarazioa borroka ikur bezala hartu. Berak dio, 2013an Garabiden berarekin elkarrekin formazioa jasotako kideek hizkuntza eskubideen lege proposamen bat bultzatu zutela 2017an, baina gero krisi ekonomikoa aitzaki, guztia blokeatua gelditu zela.

Mugimendu indigenak orokorrean indarra galdu du orain dela 20-25 urte gertatzen zenarekin alderatuz. Batzuk diote gazteek ez dutela bustitzerik nahi eta besteek lidergo eskasia dagoela. Mugimendua hor dago baina agian bere eragina oso azalekoa da. (iceberg kultura). Indigenen errepresentazioa hor izan da aspalditik, ECUARUNARI (Andeetako indigenen federazioa), FEI (Federación Ecuatoriana de Indios), etab., eta 80ko hamarkadan CONAIE (Confederación Nacional de Indígenas del Ecuador) sortu zuten. Politikoki beti ezkerrekin eta giza eskubideen borrokarekin, langile eta nekazari indigenen ordezkari. Botereari egiten dioten kritika da betidanik erabili izan dituztela indigenak txorimalo bezala. Correa lehendakariak iruzurra eta ospe-galtze kanpainak erabiliz ahuldu zuen mugimendu indigenista eta bere antolatzeko moduak. Halere, orain dela 500 urtez geroztik, beti aurrera ateratzen dira, mugimendu organikoa da eta krisialdi eta berreskurapen uneak tartekatzen dira. Ezinbestekotzat jotzen dute belaunaldi gazteak nolabaiteko erreleboa hartzea.

Gaur egun ere hor dago etengabeko pulsu politikoa. Ekuadorreko aurtengo hauteskunde orokorrean, 2021 apirilean, Pachakutik talde indigenistaren hautagaia, Yaku Perez, ECUARUNARI taldeko lehendakaria izandakoa eta egun CONAIEren eskutik eratorritakoa, lehenengo itzulian gelditu zen jokoan kanpo (botoen % 19'39) oso tarte txikiko diferentziaz eskuin liberaleko Guillermo Lasso hautagaiarekin alderatuz (% 29

19'39). Pachakutik taldeak abstentziora deitu zuen bigarren itzulian eta ondorioz Lassok lortu du garaipena (% 52'36). Indigenen errepresentazioa eta geroa berriro ahulgunean.

2007an Nazio Batuetan akordatu zuten herri indigenen eskubideen deklarazioari dagokionez, bi elkarrizketatuk ez dute inolako ezagupenik eta beste bik ezagutzen dute. Ezagutzen dutenek, funtsezkoa ikusten dute indigenek nazioarteko mailan eskubideak izatea eta beste herri indigenekin harremanak sortzea, gaur egun behintzat, Ekuador ez dagoelako Peru edo Bolivia bezain presente nazioarteko mailan. Aipatzen dute, gutxi batzuek badakitela eskubide horiek hor daudela, baina falta dena hauei erabilpena edo probetxua ateratzea dela, indigena gehienek ez dakitelako eskubide horiek existitzen direnik erez. Imbaya-k oso garrantzitsua ikusten du indigenen borrokarako eskubide horien kontzientzia edukitzea eta erabilera aktiboa ematea, bestela paper hutsean gelditzen delako eta ez delako praktikara eramaten.

Legediaren puntuarekin bukatzeko, elkarrizketatuek aipatzen dute Kichwa Otavalotarrek muga geografikoak izan badituztela, baina ez dutela bat egiten Ekuadorrek ezartzen dituen mugekin. Imbayak dio, Kichwa herria banatuta dagoela herrialde ezberdinetan eta ez datorrela bat mapa politikoarekin. Aipatzen du, Ekuadortarrak hezten dituzten sistemak, Ekuadorrekoak sentitzera bultzatzen duela, baina beraiek Kichwak direla eta bost herrialde ezberdinetan daudela. Historikoki egon den zibilizazio handienetako baten seme alabak direla esaten du eta inbasioari aurre egiten diotenen seme alabak direla aldarrikatzen du.

### **5.3.5 Sumak Kawsay proposamena eta “Movimiento por el Socialismo s. XXI” mugimendua:**

Gure lagineko 3 pertsonak ez dute inoiz horren berri izan edo oso gaisetarik. Cahihuangok dio 1994 urtean SEPCU (Servicio de Estudios Pluriculturales) zerbitzuan parte hartu zuela eta garai horretan Nazio Batuen Erakundeak babesturiko proiektu batetik sortu zela Sumak Kawsay egitasmoa, hasieran garapenerako proposamen bat bezala. Ondoren proposamen filosofiko bat eta sistema aldatzeko tresna bihurtu zen teoriarik. Sumak Kawsay hitza inken inperiotik dator eta bizitzaren harmonia eta osotasunarekin lotu izan ohi da. Indigenetatik datorren eta indigenek sorturiko bizitza alternatibo baterako proposamena da. Cahihuangok dio asko idatzi dela proposamen honetaz, baina teoria horrek ez duela ongi islatzen eguneroko errealitatean bizitzen

dutenarekin. Berak dio Sumak Kawsay aplikatuz gero, ez zaudela estatuaren menpe biritza harmoniaz eta naturarekin bat aurrera eramateko eta Covid 19ari aurre egiteko modua aipatzen du ezagupen aneztralaren adibide gisa. “Team Cunaqui” taldeak esaten omen du munduan lau pentsamendu molde globalak daudela: mendebaldekoa, asiaticoa, afrikarra eta Andeetako. Azken hau da bere hitzetan goiari eusten dion bakarra, 500 urte baino gehiagoz erresistentzia aktiboa erakutsiz. Gainditu beharreko erronka dute munduan eragin ahal izateko. Eragin horrekin lotzen da Sumak Kawsay proposamena eta bide bakarra izan daiteke hurrengo belaunaldien geroa ziurtatzeko.

“Movimiento por el socialismo s. XXI” deituriko mugimendua garapen azkarrarekin eta gizarte hobekuntzekin lotzen dute. Ekuadorren praktikan jarri omen zen 10 urtetan (Rafael Correaren gobernuekin) eta zerbitzu publikoak, hezkuntza, osasungintza, eta abar nabarmen hobetu ziren. Bolivia jartzen dute horren lekukorik hoberena eta baita Venezuela ere. Dena dela, garapenarekin bai baina korrupzioarekin ere lotzen dute eta diote diskurtsoa dela akzioa baino gehiago eta nahiz eta proposamen ezkertiarra bezala aurkeztua izan, azkenean korrupzioak eta bloketako aliantzak Estatu Batuekin edo Errusia eta Txinarekin, ekonomia neoliberalen ildora eramaten dituzte, aberatsen eta ez herriaren mesederako. Ez dira aldaketa estrukturalak ikusten. Ez dituzte eskubide historikoak kontutan izaten eta horregatik indigena asko ez datoz bat proposamenarekin. Zentzu horretan egokiago ikusten dute Sumak Kawsay, herritik eta herriarentzat sortua delako.

### **5.3.6 Auzolana/Minga:**

Auzolanari “minga” deitzen diote kichwarrek eta belaunaldiz belaunaldi mantendu den komunitateko lan taldearen ikurra izan da. Lurrarekin eta ororen ongiarekin estuki loturiko tresna. Auzolana oraindik gaur egun mantentzen baldin bada ere, indarra galdu du eta helduek parte hartzen dute nagusiki. Uraren kudeaketarekin loturiko auzolan asko egin ohi dira eta azken urtetan uraren jabetasuna enpresa pribatuetan esku gelditzen ari den heinean, soberania galtzen ari dira komunitateak eta erabakitze eskubidea murrizten.

Bestalde, landa eremutik eremu urbanora gerturatzean, orduan eta indar gehiago galtzen du auzolanak, lan hori egitearen ardura udalarena dela kontsideratzen dute batzuek, eta ez elkarri laguntzeko dinamika.

### 5.3.7 Erljioa:

Gai honekin lotua argi ikusten da oraindik ere kolonizazioaren eragina, bai orain dela 500 urte pasa hasi zena eta bai aurreko mende bukaera eta mende honetako hasieran emandako kolonizazio erlijioso berria. Laginaren bi pertsona mormoiak dira (Iglesia de Jesucristo de los Santos de los últimos días). Beste baten gurasoak kristau praktikanteak dira, baina berak dio erlijio katolikoa inbasioaren lekukoa dela eta nahiago duela arbasoen jakinduria hartzea bizitzarako ipar orratz moduan. Laugarrenak ere kristautasunean hazia izan baldin bazen ere eboluzionatu du eta katolizismo basati eta erasotzaileari aurre egiteko konpromezua hartu du, Andeatako espiritulitate aneztrala jarraituz.

Orokorrean koloniatik jasotako kristautasunak eta katolizismoaren adar ezberdinek kaltea eta dependentsia besterik ez die ekarri komunitateei. Desabantailak abantailak baino gehiago. Mendebaldean ezaguna dugun “zatitu eta garaituko duzu” esamoldeak aipatzen duena lortu dute komunitate indigena askotan. Horiek bai kichwera erabiltzen dute beraien materialetan hedapena ziurtatzeko eta gainera, fededunei irabazitakoaren hamarrena (diezmo) eskatzen die beren elizetarako (egoitza zentralak Washingtonen dituztenak) horrek komunitaterako suposatzen duen zatiketarekin. Cahihuangoren ustetan, elizek desmemorizaio prozesu indartsu batera eraman dituzte eta horren aurka kritikotasuna mantendu eta arbasoen jakintzara itzultzea da bide bakarra.

### 5.3.8 Amalurra eta Pachamama:

Pachamama ama lurra da beraienzat. Ama eta zaindaria. Beraien arbasoen jakintzetako oinarrietako bat. Bere emankortasuna eskertzeko erritu asko eskaintzen dizkiote: inti raimi, kapak raimi, eta pawkar ospakizuna ekinokzio eta solstizio bakoitzean. Energia berritzailea da pachamama, dibinitatea. Cachihuangok dio, bakarrik egunero jaten duten artoaren zikloa kontutan hartuta konturatzen ahal zara bertan ematen den “minga kosmikoaz” (auzolan kosmikoa): pachamama (lurra), taita inti (aita eguzkia), wayra (haizea) eta runa (pertsona). Bakoitzak bere rola du eta batak bestearen beharra eta dependentsia du. Misterio sinple eta handia era berean, bizitza eta heriotzaren zikloa.



Eskertze horretaz aparte, lurra ez da merkantzia bat kichwen sinesmenean. Sakratua da eta bizitza iturria. Elikadura burujabetza ematen die eta ez dute irudikatzen indigenaren mundu ikuskera lurrik gabe. Lurraren galera heriotza da.

Kolonialismo garai ezberdin guztietan lurra eta bere desjabetza izan da eta da herriak suntsitu eta asimilatzeko tresna eraginkorrena.

### **5.3.9 Osasuna eta medikuntza tradizionala:**

Oso bizirik jarraitzen duen jakintza eta tradizioa da baina honetan ere belaunaldien arteko transmisioa galtzen ari da pixkanaka. Aro modernoak ekarritako konfrontazioa ematen da osasungintza publikoa eta tradizionalaren artean. Otavalon bertan, jende gehien joaten da osasun publikoko zentro edo ospitaletara, baina aldi berean badago sendaketa zentro bat non energia txarrek eragindako “mal viento” tratatzen duten modu tradizionalan.

Batzuetan familia edo auzogune bakoitzak baditu bere moduak, sendatzeko landareak eta medikuntza tradizionaleko erritoak. Nahiz eta erabilera gutxitzen ari den beraiek diote beharra dagoenean hor dutela jakintza hori genetako memoria kolektibo aneztral horretan gordea. Dena dela, zaila dela diote, zeren eta jakintza tradizionala eta ezagutza zientifikoaren talka horretan zientifikoak beti irabazten du, sinesgarritasun gehiago duelako eta horrela diotelako boterea dutenek.

### **5.3.10 Emakumeak eta genero berdintasuna:**

Orokorrean diote emakumeek eskubide berdinak dituztela eta berdintasuna dagoela, nahiz eta ondoren “baina” batzuk aipatzen dituzten: feminizidioa, indar desberdinak dira gizon eta emakumeena, eta etxeko nagusiak diren emakumeak baita ere badaudela.

Gehiagi ere ez bada eztabaidatzen, patriarkatua herentzia koloniala dela diote eta zorionez, gero eta emakume gehiago daudela mugimendu politikoetan. Erronka emakumeen ikusezintasunarekin bukatzea eta bere ikusgarritasuna bultzatzea.

### **5.3.11 Teknologiaren garrantzia mugimendu indigenan:**

Gure kulturaren gertatzen den bezalaxe, elkarrizketatu guztiek aipatzen dute garapen handia egon dela azken urteetan indigenen teknologiararen erabilpenean. Aipatzen dut, asko laguntzen duela ikusgarritasuna hartzeko momentuan, baina hemen gertatzen den bezalaxe, alde arriskutsua ere aurkitzen dugula. Alde arriskutsu hau gazteek sare sozialetan edo bideojokoetan maneiatzen duten gehiegizko erabilpena izango litzateke, modu batean gazteria lokartzen duelako eta kulturaren transmisioa zein interakzioa bidean galtzen delako. Beste alde arriskutsu bat globalizazioa ekartzen duela aipatzen du Pachacutik-ek, kontsumismora bultzatzen duelako eta indigenen esentzia galtzera bideratzen duelako. Seme alabei teknologia berrien inguruko hezkuntza ematea ezinbestekoa ikusten du, hauek erabilpen egokia emateko teknologia berriei.

Alde on asko ere badituzte teknologia berriek, Imbayak azaltzen duen moduan. XXI. mendean, Imbayak dio ezinbesteko tresna dela herri indigenari ikusgarritasuna emateko eta beraien artean harremanak sortzeko. Imbayak esperientzia pertsonala dauka gai honetan, duela urte batzuk Facebooken "Kichwashun" izeneko orrialde bat ireki zuelako, bertako berriak partekatzeko eta jendea harremanetan errazago jartzeko baliabide bat bezala ikusiz. Aipatzen du hasieran ez zuela erantzun handirik izan jende gaztearen partetik, baina aurrerago herrialdea krisian sartu zenean, jendea bertan publikatzen hasi zen. Gaur egun, oso web horri aktiboa da eta herri indigena honi ikusgarritasun handia ematen dio.

Kichwa hizkuntzarentzat oso ona da horrelako sare sozialetan aktibo egotea, jende gaztea erakartzen duelako eta kichwa hizkuntzan publikazio asko bertan aurkitzen ahal direlako. Modu honetan, herri indigenaren borroka ikusgarri dago edozeinentzat eta hau motibagarria izan daiteke indigena gazteentzat gehien bat.

### **5.3.12 Indigena desagertuaren mitoa:**

Europarrentzat ze mezu duten galdetu diet, bertan "indigena desagertuaren" mitoa oso zabalduta dagoelako. Guztiek aipatu dute indigenak beti egon direla eta nahiz eta globalizazioa oso gogor datorren arren, bertan jarraituko dutela borrokan eta beraien kultura bizirik mantentzen ahaleginduko direla. Imbayak esaten du sistemak ikusezin bihurtu nahi dituztela herri indigenak eta horretan daudela lanean.

Honi aurre egiteko, herri indigena ezberdinen artean zubiak eraikitzea oso garrantzitsua dela aipatzen du, elkarren artean laguntzeko eta ikusgarritasuna areagotzeko. Behin eta berriz aipatzen du noranzko berdinean goazen herrien arteko harremanak sortzea ezinbestekoa dela eta elkar laguntzen diren herrialde guztientzat positiboa izango dela.

Imbayak dio, Euskal Herrira egin zuen lehenengo bidaiari (nire gurasoen etxera etorri zenean) bizitza aldatu zitzaioela. Motibazio ikaragarria eman omen zion euskarak nola biziraun zuen ikusteak eta baita ze aurrerapen lortu diren ikusteak, hezkuntzan, instituzio publikoetan edo komunikabideetan. Modu batean, euskarak posible egin badu kichwak ere egin dezakeela ikusten du, eta antzeko egoeran egon daitezkeen bi herrialde hauen arteko harremana finkatzea oso onuragarria ikusten du. Gaur egun, Garabide elkartearekin harremanetan daude eta hau beretzat motibazio eta itzaropen iturri handia dela aipatzen du hizkuntza eta kultura mantentzeko momentuan.

## **6. PROPOSAMEN METODOLOGIKOA: SEKUENTZIA DIDAKTIKOA**

Munduko herri indigenen bilakaera eta bereziki Otavalotarren egoera aztertu ondoren, argi ikusten dugu herri indigena desagertuaren estereotipoa aldatzea beharrezkoa dela. Estereotipo honen ideia aldatzeko bidean, hezkuntza aldetik asko egin daitekeela azaleratu nahi dut. Modu honetan, generazio berriek herri indigenekiko beste ikuspuntu bat edukitzea lortuko genuke. Ikuspuntu hau bizirik dauden indigenena izango da. Borrokatzen duen herri batena eta autodeterminaziorako bidean doan herri baten irudia.

Egungo hezkuntza sisteman, ez dago ikasgairik non herri indigenen berri ematen den edo hauen egoera hobetzeko biderik dagoela erakusten duen. Ikasleei esaten zaien informazio gutxia, indigenen egoera agonikora eta jasan duten zapalkuntzara mugatzen da. Gainera, egungo Euskal Herriko egoeran, jatorri indigenak dituzten ikasle asko aurkitzen ahal ditugu, eta hauentzat ere onuragarria izan daiteke lanketa hau egitea, errekonozimendu bat dutela ikus dezaten. Historikoki indigenak pairatu dituzten giza eskubideen bortxaketak aipatzen dira baina ez da ezer esaten beraien kultura, hizkuntza, aberastasuna edo daramaten bizimoduaz. Honen ondorioz, txikitatik indigenen irudi

estereotipatu bat edukitzen dugu. Desagertzen ari den "indio basatiaren" irudia alegia eta behin eta berriz errepikatzen da eskoletan "indioz" mozorratzen garen bakoitzean.

Esan beharra dago, Euskal herrian baditugula Otavalo herriko komunitateak dituzten euskal-indigenak. Esate baterako, Orduñan edo Iruñan, Otavaloko biztanle kopuru esanguratsu bat aurkitu dezakegu eta beraien kultura bizirik mantentzeko ahaleginetan daude. Beraz, gure eskoletan ere lan honetan aipatzen dudana jendea aurkitu dezakegula argi ikusten da.

Idea honi kontrari egiteko eta ikasleei Laugarren Munduaren errealitatera hurbiltzeko, mota askotako dinamika egin daitezke. Ondorengo orrialdeetan (4. eranskina), proposamen bat eskainiko dut non lehen hezkuntzako ikasleekin modu erraz batean herri indigenekiko dugun ikuspuntua aldatu dezakegun.

Aipatu beharra dut ez dudala aukerarik eduki sekuentzia didaktiko hau praktikara eramateko. Covid-aren egoera dela eta, eskoletan muga handiak jartzen ari dira eskola erakundetik kanpotik dauden praktikak burutzeko. Halere, bertan atxikitzen dut nire ekarpenaren lekukoa den sekuentzia didaktikoa, egunen batean aurrera eramateko asmoarekin edo nahi duenak erabiliko duen esperantzarekin.

### **6.1 Esku hartzearen deskribapena:**

Dinamika hau aurrera eramateko, "*Hizkuntza indigenak ama lurra zaintzen*" (Llaupi et al., 2018) liburuaz baliatuko gara. Bertan, herri indigena ezberdin askotako ipuinak agertzen dira bertako hizkuntza propioan idatziak eta ondoan euskaraz idatziak. Ipuin hauek herriaren kultura ulertzen laguntzen digute eta aldi berean umeentzako irakurtzeko errazak dira.

Dinamika modu askotan egin daiteke: denon artean hizkuntza indigenan idatzita dagoen zatia irakurriz, txokoka ipuin ezberdinak irakurriz eta ondoren gainontzeko ikaskideei ipuina kontatuz, ipuinak irakurriz eta hauen marrazki handi bat eginez, ipuinak irakurri ondoren beste ipuin bat idatziz, eskolako beste geletara ipuinak kontatzera joanez...

Ipuin hauetako askok, herri indigenak bizirik daudela erakustez gain, hauek ama lurrarekin duten kontaktuaz hitz egiten digute. Modu honetan, ama lurraren zainketa eta honen jasangarritasuna lantzen ahal da ikasleekin.

## **6.2 Helburua:**

Esku hartze honen helburu nagusia ikasleek indigenekiko duten irudi kolonialista aldatzea izango da. Ikasleei bizirik dagoen herri eta kultura baten irudia eman beharra zaie txikitatik indigenek duten irudi estereotipatua gailendu baino lehen.

Esku hartzearen beste helburu garrantzitsu bat, hizkuntza gutxituen egoeraz jabetzea izango da. Hizkuntza gutxituak kulturarekin duten lotura zein garrantzitsua den azalduko zaie ikasleei.

Beste helburu bat, naturarekin gero eta galduagoa dugun harremana berreskuratzea izango da, indigenen bizimodua eredutzat hartuz. Ama lurraren zainketa eta jasangarritasunaren kontzientzia barneratzeko ariketa egokia da indigenen bizimodura hurbiltzea, garapen sostengarriaren eredu bat eskaintzen duelako batik bat.

Nik proposatu ditudan helburuez gain, " Hizkuntza Indigenak Ama Lurra Zaintzen" (Llaupi et al., 2018) liburuak helburu batzuk ezartzen ditu liburu idaztearen zergatia justifikatzeko:

*Ekimen honek euskal herritarrei bi kontu jakinaraztea du helburutzat. Batetik, kooperazio linguistikoa nola ulertzen dugun adieraztea, zein balio, zein garrantzia eta zein aukera dituen. Bestetik, isilarazitako herri indigenetara hurreratzea, euren sentipenak eta sentiberatasunak ezagutu ditzagun. Horiek guztiak mitoen eta hizkera poetikoaren bitartez, bihotzetik bihotzetara, edo gibeletik gibeletara, edo garunetik garunetara (p. 3)*

### **6.3 Ebaluazio:**

Sekuentzia didaktiko honen ebaluaketa burutzeko, taula formatuan egindako errubrika bat osatu dut (5. eranskina). Taula bidezko errubrika hau, ikasleei erakutsiko zaie sekuentzia didaktikoaren lehenengo saioan. Horrez gain, ikasleei galdetu egingo zaie ea ondo iruditzen zaien ebaluatzen modu hau. Taulan sartzeko beste ebaluatzen ideien bat edukiz gero ere, ikasleek proposamenak ematen ahalko dituzte.

Modu honetan, ikasleek nola ebaluatzen izango diren jakingo dute hasieratik eta gainera beraien iritzia ere kontutan hartuko da ebaluazio errubrika osatzeko momentuan. Honen helburua, ikasleek ere ahotsa dutela ikustea da, hau da, beraien iritzia ere kontutan hartzen dela.

Sekuentzia bukatzerakoan, irakasleak ikasle bakoitzaren errubrika taula beteko du. Modu kulaitatiboan ebaluatzen zaie ikasleei, zenbaki bidezko notarik jarri gabe.

## **7. ONDORIOAK**

Ikerketaren hasieran azaldu dudana moduan, bi belaunaldietako testigantzak jaso ondoren, azken urteetan indigenen bizimodua, borroka, presentzia eta ikusgarritasunak aurrera edo atzera egin duen azalatu nahi izan dut.

Ondorio asko atera ditut nire ikerketaren prozesu guztian zehar. Huen artean Otavalotarrek eta Kichwa herriak pairatu dituzten giza eskubideen urraketak, barne kolonialismoaren biktimak izatea edo urteekin lotu duten ikusgarritasuna dira atentzio gehien deitu didaten ondorioak. Horrez gain, Kichwa kulturak lotu duen nazioarteko aktoretza politikoak ere garrantzi handia du datozen urteetan lotu nahi diren helburuekin. Ekuadorreko indigenek borrokaren bidez lotu dutena eredu garria da egoera agonikoan dauden hainbat herri indigenentzat.

Ondorio hauetan askoz gehiago sakontzen ahalko zen, baina datozen puntuak garrantzitsuenak direla esango nuke. Beraz, hauek dira ikerketaren galdetegiak aztertuta atera ditudan ondorio nagusiak:

- **Transmisio falta eta egoera agonikoaren erronka:**

Denboran atzera begiratzen badugu eta elkarrizketatu zaharreneen testigantzak aztertzen baditugu, kichwa otabalotarren jakintza jende heldutik gazteetara transmititu izan dela ikus dezakegu. Hizkuntza, medikuntza tradizionala, ospakizunak eta kultura or-har, generazioz generazio pasa ahala transmititu izan da modu naturalean. Transmisio hau herri indigena bizirik mantentzearen arrazoi nagusia da, beraien bizitzeko moduarekin eta kulturarekin jarraitzea ahalbideratzen duelako eta urte askotako jakintza galtzen ez delako. Transmisio hau modu naturalean eman da urteetan zehar.

Eguno egoeran, ezin dugu esan transmisio hau galdu egin dela, baina bai modu larrian gutxitu dela. Gaur egungo herri indigenetako jende helduak jada transmisio murriztagoa jaso izan zuten beraien aurreko generaziotik, ordurako globalizazioa hasia zelako eta herri indigenak zapalkuntza pairatu izan duelako. Horren ondorioz, egungo gazteek jasotzen ari diren transmisioa are murriztagoa da.

Gaurko gazteek transmisioa jasotzen duten arren, murrizta da eta gehien bat oso azalekoa (1. eranskina). Zenbait tradizio, janzkera edo ospakizun burutzen jarraitzen dituzte baina kultura bat benetan bizirik mantentze duten osagaiak, medikuntza, sinesmenak edo hizkuntza bezalakoak bidean galtzen doaz.

Hizkuntzaren kasuan, oso eremu zehatzetan erabiltzen da eta ez dago batere instituzionalizatua. Kichwera gehien bat jende helduarekin hitz egiteko erabiltzen da eta hau ere galtzen doala aipatzen dute elkarrizketatuek. Hizkuntzaren transmisio faltak egoera larrira eraman du eta gaur egun desagertzeko arriskuan dagoela aipatzen dute elkarrizketatuek. Egoera kezagarria da, hizkuntza galdu ezkeru kultura bera ere denbora gutxian galtzen joango zelako.

Transmisioaren ahultzearen arrazoi nagusia globalizazioa dela esan dezakegu, oso modu orokorrean bada ere. Egungo indigenen ondorengoek ez dute beharrik ikusten herri indigenaren jakintza bizirik mantentzeko edo hizkuntza horretan komunikatzeko. Praktikoagoa edo irteera gehiagokoa ikusten dute zuzenean gaztelania ikastea edo bigarren hizkuntza bezala ingelesa ikastea, lan munduari begira edo gizartean integratzeko erabilgarriagoa delako.

Beraz, herri indigenen jakintzen transmisioari begiratzen badiogu, atzerapauso larri bat eman dela ondorioztatu dezakegu, eta honekin batera, herri indigenen ikusgarritasunak, presentziak eta borroak.

- **Educacion intercultural bilingüe:**

Elkarrizketatuek aipatzen dutenez, betidanik ezagutu dute hezkuntza publikoa eta duela 25 urte ingurutik educacion intercultural bilingüe delakoa martxan dagoela diote. Hasiera batean oso proiektu aberasgarria zirudien. Peru bezalako herrialde batzuek eredutzat hartu zuten, baina hasierako planteamenduaren errotze faltaren ondorioz eta irakasleen formakuntza faltagatik, ez du uste zuten eragina eduki kichwa hizkuntzaren mantentze edo eta indartzean.

Paperean oso ideia ona ematen zuen arren, zirrikitz betetako proiektu bat da eta hau argi azaleratzen da herritar gehienek guztiz erdalduna den hezkuntza bat nahiago dutelako. Honen arrazoa kichwa hizkuntzaren prestigio falta da, guraso askok kichwera etxean eta jende helduarekin hitz egiteko soilik balio duelako uste baitute. Etorkizunera begira, bai instituzio aldetik baita lan mundura begira ere, erabilgarriagoa ikusten dute seme-alabak hezkuntza guztiz erdalduna jasotzea. Ez dago motibaziorik hizkuntza bizirik mantentzeko ahalegin bat egiteko.

Hezkuntza eredu honen beste akats larri bat irakasleen kichwa hizkuntzan duten jakintza falta da. Irakasle hauek erdarazko sisteman heziak izan dira. Eredu hau eraginkorra izateko, irakasleek hizkuntzaren arrisku egoera ulertu beharra dute eta hau aldatzeko formazioa jaso beharra dute. Kichweraz hitz egiten duten irakasleak ere badauden arren, gurasoek hezkuntza erdalduna nahi dutenez, hauek erdaraz hitz egiten bukatzen dute. Irakasleen formazio soziolinguistiko bat beharrezkoa da, irakasleek hizkuntzaren balioa ulertu dezaten.

Beste akats larri bat, sistema inposatutakoa dela da. Familia askok ez dituzte baliabiderik seme-alabak hezkuntza erdalduneko sistema batera bidaltzeko, beraz sistema bilinguera bidaltzen dituzte beste aukerarik ez dutelako. Honek kontrako eragina sortzen du hizkuntza mantentzeko asmoan, guraso askok ez dutelako beraien seme-alabak horrelako sistema batean heztea eta ahaleginak egiten dituztelako hau ekiditeko.

Elkarrizketatu batek aipatzen duen moduan, paperean kichweraz erakusten den arren, errealitatean hauetako irakasle askok ez dakite kichweraz ongi hitz egiten eta klase guztiak erdaraz ematen dituzte. Honen adierazgarri da sistema honetatik ateratzen diren ikasleak erdaldunak direla eta ez dutela kichwa hitz egiten familia eremuan izan ezik.



Beraz sistema hau teoriar oso interesgarria eta beharrezkoa baldin bada ere, arrakastatsua izateko zubi sendoagoak eraikitzearen beharra dago.

Hau guztia esanda ateratzen den ondorio nagusia, kichwera egoera larrian dagoela da eta gehien bat, hezkuntza sistema honek ideia ona dirudien arren paperean gelditzen dela eta ez dela hizkuntza bizirik mantenduko duen tresna. Ez horrela inposatzen jarraitzen badu behintzat.

- **Teknologia berriak hizkuntzaren mantentzean:**

Teknologia berrien erabilpena funtsezko baliabidea da kichwa kulturaren eta hizkuntzaren mantentzean. Egungo gizarte globalizatuan gazteak sarera konektatuta bizi dira eta bertan dena erdaraz baldin badago, kichwa alde batera gelditzen da eta indarra galtzen du. Globalizazioaren inertziak, egungo gazteek gehien bat erdaraz edo ingelesez dauden plataformak erabiltzen dituzte

Honi aurre egiteko kichweraz dauden plataformak sortu zituzten sare sozialetan eta gazteek erabilpena ematen diote. Erabilpen honen barruan kichweraz dauden artikuluak, berriak, irrati saioak eta beste hainbat idatzi aurkitzen ditugu. Hauetako gehienak eguneratuak daude eta berriak emateko erabiltzen dute, baita kichwa kulturaren ikusgarritasuna zabaltzeko ere.

Teknologia berrien erabilpenarekiko ondorioztatzen dudan arazorik larriena, plataforma berrien sorrerarekin lotuta dago. Esan dudan bezala, plataforma hauek aurreko generazioetako jendeak sortutakoak dira. Plataforma hauek kichwera mantentzeko kontzientzia batekin sortu ziren, benetako behar bat ikusten zelako. Egungo gazteek ordea, plataforma hauek erabiltzen dituzte baina ez dute inizatibarik horrelako plataforma berriak sortzeko edo aurrerapen gehiago egiteko.

Beraz, teknologia berriei fruitu gehiago ateratzeko, gazteek plataformak erabiltzeaz gain, berriak sortzea ezinbestekoa izango zen. Kichweraz eduki gehiago eta eguneratuagoak egotea nahi bada, hauek generazio berrietatik sortutakoak izan beharra dira, hauek izango direlako etorkizunean kichwa kultura bizirik mantenduko duten pertsonak. Galtzen ari den hizkuntza bati ikusgarritasuna emateaz gain, honen normalizaziorako ezinbestekoak ditugu teknologia berriak XXI. mendean.

- **Bi norabideetako ibilbidea:**

Herri indigenen bilakaera eta zapalkuntza ikusi ondoren, kolonialismo historikoa eta modernoa pairatu dutela argi gelditzen zaigu. Urteetan zehar zapalkuntza pairatu dute eta globalizazioan kaltetuak eta desagertzeko arriskuan kokatu dira.

Horren aurrean, antzeko egoeran dauden herrien arteko elkar laguntza oso garrantzitsua da. Nazio gabeko estatuek internazionalki ikusgarritasuna irabaztea eta horretarako elkarren arteko harremanak lotzea baliabide garrantzitsua izan daiteke.

Euskal herriko egoera errealitate honetara hurbiltzen da eta honen aurrean euskal herriko irakasleak izango direnek formazioa eguneratzea beharrezkoa da. Bertan, atzerritik etorritako euskal/indigenak aurkitu ditzakegu eta honek hezkuntza birplanteatzera eramaten gaitu, duela urte batzuk ez zeudelako egoera horretan zeuden ikaslerik. Egoera agonikoan egon diren edota dauden bi herrialde izanik, elkarren arteko laguntzarekin komuneko interes batzuei aurre egiten ahal zaie: ikusgarritasuna eta internazionalki ahotsa izatea adibidez (Gaintza et Celorio, 2015).

Hau esanda, argi ikusten dugu antzeko egoeran gauden herrialdeen arteko lotura bat dagoela eta honi fruitua ateratzeko, enpatia zubiak eraiki beharra direla. Modu honetan, bi herrialde irabazten ateratzen dira eta egoera berdinean edo antzekoan dauden nazio gabeko estatuentzat eredu izatea lortu daiteke.

## **8. BALORAZIO PERTSONALA ETA HAUSNARKETA**

Lan honen balorazio pertsonala oso positiboa izan da. Ekuadorreko lagunek beraien prestutasuna erakutsi didate eta interes handia erakutsi dute nire lanarekiko. Honek beraien ikusgarritasuna handitzeko eta bizi duten egoera mundura zabaltzeko gogoia dutela adierazten duela uste dut. Prozesu polita izan da, ezagutu nuen jendea eta kultura are gehiago ezagutu dudalako eta beraien kulturaren egungo egoerara gehiago hurbildu nautelako.

Herri indigenekiko nuen jakintza areagotzen lagundu dit lan honek. Nire helburua lan honekin, bertan dugun indigenen irudi estereotipatua aldatzea izan da, baina nik neuk indigenekiko nuen irudia aldatzen lagundu dit. Bizirik eta gauzak aldatzeko grina duen

herri bat dela ikusi dut eta beste herri indigena batzuen inguruan gehiago jakiteko grina ere piztu dit.

Elkarrizketetako ondorioetan azaltzen den moduan, herri indigenen arteko harremanak eta zubiak eraikitzearen garrantziaz ere jabetu naiz. Ekuadorreko indigenek Euskal Herriarekin duten harremana oso onuragarria da bi herri hauentzat, eta bide berean pauso gehiago ematea interesgarria izango litzateke. Ekuadorreko indigenentzat oso motibagarria da euskarak izan duen bilakaera eta elkar lagunduz, kichwa hizkuntzak bilakaera berdina izan dezakeela argi dago. Kichwa Otavalotarrek guri ere asko erakusteko dutela ikusi dut, naturarekin duten harremana edo medikuntza eta ohitura tradizionalak gu baino gehiago mantentzen dituztelako eta hau altxor handi bat delako.

Prozesu interesgarria izan da lan hau burutzea eta uste dut lortu dudala testigantzak biltzea eta herri indigenak bizi duten egoera eguneratua gurera ekartzea. Kichwa Otavalotarretan zentratu naizen arren, mundu osoko herri indigena ezberdinek ere borroka berean jarduten dutela uste dut. Lan honekin, herri indigena eta hauen borroka bizirik dagoela demostratu dut eta pozik nago lortutako emaitzekin.

## 9. BIBLIOGRAFIA

- AFS Intercultural Programs (2010). *Iceberg Cultural* [Imágen].  
[https://www.researchgate.net/figure/The-Iceberg-Concept-of-Culture-AFS-Intercultural-Programs-2010\\_fig1\\_334170318](https://www.researchgate.net/figure/The-Iceberg-Concept-of-Culture-AFS-Intercultural-Programs-2010_fig1_334170318)
- Amani Kolektiboa (1994). *Educación Intercultural. Análisis y resolución de conflictos*, Editorial Popular.
- Arregi, J. I. (2012). *Ama lurraren zaindari lumadunak: herri indigenak nazioartean*. Udako Euskal Unibertsitatea.
- Arregi, J. I. (2013). *Diplomacia emplumada: una visión del cuarto mundo desde Euskadi*. UPV-EHU. Euskal Autonomia Erkidegoa.
- Arregi, J. I. (2010). *Laugarren Mundua: Herri indigenen erbeste ekintza, onepen eta aldaketa eragile nazioarteko harremanetan 1992-2007* [Doktorego tesia]. UPV-EHU. Euskal Autonomia Erkidegoa.

- Barquín, A. (2002) *Gogoeta batzuk “kulturaren” eta “Kulturarteko hezkuntzaren” inguruan*. Hik Hasi monogr. 9 Etorkinak gure eskolan.
- Bendetti, M., Bonasso, M., Cardoza y Aragón, L., Carpentier, A., Dieterich, H., Dussel, L., Fernandez Retamar, R., Guadarrama, P., Gutierrez, G., James, P., Poniatowska, E., Roa Bastos, A., Selser, G., Chomsky, N., Castro, F., Chungara, D., Guayasamín, O. (1989). *Nuestra America contra el V centenario. Emancipación e identidad de América Latina*. Txalaparta Editorial.
- Besalú, X. (2002). *Diversidad cultural y educación*, Síntesis Educación.
- Bourhis, Richard Y. , Leyens, J. P. (1996). *Estereotipos, discriminación y relaciones entre grupos*, (Koord. J. Francisco Morales eta Darío Páez) McGraw-Hill argitaletxea.
- Euskal Diaspora eta Kultura. (2021eko Otsailaren 24a). *Euskara Biziberritzeko Esperientziara Hurreratzea' online tailerra abiatuko dute datorren astean Mexikoko UNAMen*. <https://www.euskalkultura.eus/euskara/albisteak/euskara-biziberritzeko-esperientziara-hurreratzea-online-tailerra-abiatuko-dute-datorren-astean-mexikoko-unamen>
- Gaintza, Z., Celorio, J. (2015) *Cooperando desde la UPV/EHU. Fortalecimiento del sistema de Educación Intercultural Bilingüe en Ecuador*. Euskal Herriko Unibertsitatea.
- Gereka, M. (2005). *Inmigrazioa eta kulturartekotasuna mallerrekan: diagnostia eta lan proposamenak*. Tesia, Mondragon Unibertsitatea. Argitaratu gabea.
- GoRaymi. (s.f.). *Pueblo indigena Otavalo*. <https://www.goraymi.com/es-ec/imbabura/otavalo/culturas-nacionalidades/pueblo-indigena-otavalo-ai340428d#:~:text=Siendo>
- IWGIA. (2019ko apirilaren 24a). *Mundo Indigena 2019: Ecuador*. <https://www.iwgia.org/es/ecuador/3396-mi2019-ecuador.html>
- Lema, G. P. (1995). *Los Otavalos. Cultura y tradición milenarias*. Ediciones Abya-Yala
- Lertxundi, A. (2004ko azaroaren 9a). *Kulturak egiten gaitu, kultura egiten dugu*. Erabili. [http://www.erabili.eus/zer\\_berri/muinetik/1099902620](http://www.erabili.eus/zer_berri/muinetik/1099902620)

Llaupi, AR., Marinao, S., Sanchez Romero, F., Taruire Carpio, F., Huni Kui, T., Tarini, S., Flores, X., Escué, C., Castro, H., Esmeralda Ac, I., Huinac, S., Lix, C., Oxlag Cúmez, M., Cano, D., Pech, M., Garrido Bonilla, M., Sánchez L., Barreña, A., Larrañaga, J eta Mendizabal, M. (2018). *Hizkuntza indigenak ama lurra zaintzen*. Antza Komunikazio Grafikoa.

Maia, J. (2006). *Apaizac Obeto*. Lekuko kolekzioa. Elkar.

Naciones Unidas. Departamento de Asuntos Económicos y Sociales. (datarik gabe) *Los Pueblos Indígenas en las Naciones Unidas*.  
<https://www.un.org/development/desa/indigenous-peoples-es/historia.html>

## 10. ERANSKINAK

- 1. ERANSKINA: Izebergaren irudia



- **2. ERANSKINA: Galdetegia**

Saludos, estimados compañeros y compañeras. Muchísimas gracias por su participación y por el tiempo que van a dedicar a este cuestionario.

**Imanalla huyashka mashikuna. kikinkuna chaskishpa kay tapuykunata tikrachinkapak pachata karakrinakushkamanta yupaychapani.**

Mi nombre es Eki Gereka Amunarriz, soy un joven de 25 años que vive en el País Vasco, concretamente en un pequeño pueblo llamado Zubieta, al norte de Navarra (España). Estoy terminando mi carrera universitaria de Educación Primaria en la Euskal Herriko Unibertsitatea/Universidad Pública del País Vasco (UPV-EHU) y como proyecto final de carrera, estoy investigando acerca de la interculturalidad y el indigenismo. Dado que mis padres estuvieron viviendo en Peguche y, años más tarde, yo también tuve la oportunidad de visitar ese hermoso pueblo, me gustaría pasar un cuestionario acerca del sentimiento indígena a diferentes personas, jóvenes y adultos, que vivan en el entorno de Otavalo. Mi objetivo es reunir distintos puntos de vista sobre la opinión que tiene la sociedad en cuanto a la situación actual de los pueblos indígenas para así, intentar construir puentes y contrastar información sobre las naciones sin estado como la mía y los pueblos indígenas como ustedes.

Toda la información reunida en este cuestionario será utilizada solamente para el objetivo de esta humilde investigación. Siéntanse libres para expresar y explayarse cuanto quieran.

Muchísimas gracias por su inestimable ayuda. Les agradezco de corazón.

**Kikipak may alli munaywan yanapashkamanta, shunkumantapacha yupaychapani.**

## **CUESTIONARIO**

### **Nombre:**

1. Marisol Campo
2. Francisco Campo
3. Pacha Cutic Lema
4. Imbaya Cachihuango

### **Edad:**

1. 25
2. 60
3. 33
4. 60

### **Lugar de nacimiento:**

1. Otavalo, Ecuador
2. Peguche
3. Peguche
4. Peguche

### **Lugar de residencia:**

1. Peguche.
2. Peguche
3. Peguche
4. Otavalo

### **1. ¿Qué es para usted el término “indígena” o “ser indígena”?**

1. Es ser parte de una identidad única, tradicional y autóctona de pueblos andinos.
2. Es pertenecer a una cultura milenaria.
3. Indígena es para mí un término que se utiliza para identificar a las culturas nativas independientemente del territorio donde se encuentren. Pueden ser Andinos,

Amazónicos de América o de otro Continente. Ser indígena es el auto identificarse parte de la cultura nativa de donde procede sus raíces u orígenes biológicas.

4. Este es un término que si mal no recuerdo por los 60-70 permea, es decir, toma forma digamos. Antes de eso solamente existía la categoría de indio o más, no?...y como este término era muy despectivo luego aparece el término indígena. Equivaldría que se refiere a una persona que vive desde muchísimo tiempo, muchísimos años históricamente hablando, que vive desde milenios en.. Especialmente acá en los Andes. Y también se referiría a una persona que pertenece a algún grupo que no esta dentro de lo que la mayoría es. Es decir, también estaría asociado a ser parte de alguna minoría y se viste y habla y come y piensa diferente. Por ahí estaría esta palabra de ser indígena.

**2. ¿Se considera usted indígena? ¿Por qué? ¿Cómo se calificaría: kichwa, otavalo/a, ecuatoriano/a...?**

1. Si me considero indígena porque soy parte de una familia indígena con tradiciones y costumbres propias de mis antepasados, es un herencia muy importante para mí.

2. Me califico como quichua Otavalo de la comunidad de Peguche.

3. Si me considero indígena o Kichwa Otavalo, como lo quieran nombrar. Porque siento orgullo por la forma ideológica, forma de vivir y todo lo creado por nuestros ancestros de nuestra cultura Kichwa. Gracias a su legado mantenemos el respeto a la madre Agua, madre Tierra y a los espíritus las que nos protegen y nos dan una vida abundante en alimentos, amor y felicidad.

4. Si. Yo me consideraría indígena en el sentido de que los otros me dirían y me nombrarían de esa forma, me verían de esa manera. Y me consideraría así porque, claro, porque yo me visto como indígena, ¿cierto? Y hablo como indígena...un poco redundante (jejej). En alguna medida digamos que soy diferente, no? Cómo se calificaría: kichwa, Otavalo, ecuatoriano...? En realidad esto es una cosa muy interesante que me toco de alguna manera viviendo el proceso de los pueblos indígenas, en algún momento, no podría precisar el año pero, yo creo que desde que tengo conciencia, para mi hoy por hoy, me defino como kichwa Otavalo, es decir, pertenezco al pueblo kichwa Otavalo de la nacionalidad kichwa que pertenece a la gran nación kichwa, por lo que podríamos decir a la gran nación inca, no? Es decir, hay una memoria histórica que está vigente, que..claro, el sistema educativo no lo transmite pero nosotros a través de la familia o la auto formación, tenemos con bastante claridad esta cuestión, no es cierto?. Entonces, eh, cuando yo me presento suelo presentarme como alguien que nació en la comunidad de Peguche, pertenezco al pueblo kichwa-otavalo, y soy... por lo tanto históricamente provengo de un pueblo grande o de esta unión de grandes naciones como fue la de la gran confederación del Tawantinsuyu y que eso es más conocido como el imperio inca. Y que actualmente vivo en el país llamado Ecuador que tiene alrededor de más de 200 años. Esa es mi nota de siempre cuando hago mis presentaciones.



**3. ¿Cuál fue su lengua nativa o primera lengua?**

1. Español ,entiendo muy bien el quichua pero ya no se practica como antes, asi que no me fluye mucho hablar quichua.
2. Quichua.
3. Lengua nativa: kichwa, primera lengua: español
4. Tengo la suerte de haber estado en mi familia que vivía la lengua kichwa, por lo tanto la lengua materna o nativa para mí es el kichwa, heredada a través de mis padres y claro, eso, rápidamente no es que me limitaba a aprender el castellano. Yo no sé cuando lo aprendí pero fue un poco más tarde, seguramente ya fue en la escuela.

**4. ¿Qué lengua/as habla? ¿Con quién o en qué contexto?**

Familia:

1. español y quichua con los adulto mayores.
2. quichua y español.
3. Español y kichwa
4. En la actual familia que yo tengo con mi esposa hablamos en kichwa. Esto ha tenido un proceso, tal vez en los últimos 15 años estamos con mayor énfasis en usar la lengua kichwa.

Trabajo:

1. español
2. quichua y español.
3. Español y kichwa.
4. En mi actual trabajo, en mi grupo de comunicación hay 3 kichwa hablantes, entonces con ellos si que yo hablo, y el resto no hablan, así es que con ellos lo hacemos en castellano.

Comunidad:

1. español
2. quichua.
3. Español y kichwa.
4. Al inicio vivía en Peguche, ahí si que normalmente lo hacíamos en kichwa y luego en los últimos años un tanto bilingüe, y actualmente vivo en una comunidad urbana, es decir, muy cerca de Otavalo, entonces en esa comunidad es cierto que

existen kichwa hablantes, pero ya son pasivos, y algunos miembros de esta comunidad todavía son activos. Entonces, hablo con pocos en kichwa y con la mayoría en castellano.

Organismos oficiales:

1 español (castellano).

2.español.

3. español

4. Uff, Ahí si que es una.. no hay gente que está hablando kichwa entonces por lo general lo hacen en castellano, excepto algunos organismos, digamos donde existen oficialmente hablantes. En este caso por ejemplo el sistema de educación intercultural bilingüe tiene gente que es bilingüe. Normalmente yo y algunos compañeros que tenemos conciencia lingüística si que lo hacemos, pero son espacios en los que tampoco ellos usan el kichwa, son pasivos. Eso sería más o menos mi forma de usar las lenguas.

## 5. **¿Considera importante su lengua nativa o primera lengua? ¿Por qué?**

1. Si porque es propia ,y milenaria desde hace miles de años.

2. Si porque es lengua de nuestros antepasados desde ya hace miles de años.

3. La lengua kichwa si la considero importante porque nos identifica como cultura y existe mucha información valiosa en el lenguaje. El idioma es una de las fortalezas de la cultura y es muy importante mantenerla para que nuestras generaciones que vienen puedan seguir manteniendo con fuerza la cultura kichwa.

Me parece importante la lengua española para poder realizar estudios académicos o auto estudios por medio del internet. Toda la información necesaria para poder estudiar se encuentra más fácilmente en el idioma español.

